



MARTIN LASARTE

«Prentsak sekula
ez nau larrutu
nik nire burua
bezainbeste»

- **Paz de Ziganda ikastola** Neurozientzien aplikazioa, ikasten laguntzeko
- **Josep-Lluís Carod Rovira:** «Oraintxe aldarrika nezake independentzia, baina nork egingo dit kasu?»
- **Eliza** Korrante atzerakoienak nagusitu dira
- **Aurrezki kutxak** Lege berriak bankarizatzeko bidean jarri ditu
- **Euskal Herriko Antzerkizale Elkartea** Euskal ekoizpena babestea eta zaleak ugaritzea helburu



argia


www.argia.com/multimedia

*bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean*



Bideoak

Elkarriketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.




Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Euskal Herriko txoko ezberdinetan emandako hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean euskaraz.



Film laburrak

Euskarazko film laburren hautaketa.



berria

Dokumentalak

Dokumental berri bat bi astean behin. Euskaraz edo euskarazko azpitu-luekin.



Azaleko argazkia:

DANI BLANCO

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Kortá.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**



• **NON ZER** •

2010eko urriaren 10a, 2.247. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Koldo Almandoz:** «Orokorrean ez dut jendea maite». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Eliza.** Norabide aldaketa Munilla eta Izetarekin. UNAI BREA / 5

Pertsonaia

- **Martin Lasarte:** «Ekilibrista lana da gurea». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- **Haur hezkuntza.** Inteligentzia landu aurretik egin beharrekoak. MIKEL GARCIA / 15

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Plazerez hordi. BEÑAT SARASOLA / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 21
- **Hezitzailea.** XABIER ETXANIZ ERLE / 22
- **Txandan** Balio. AMATIÑO / 22
- **Zein da onartu litekeen egia?** FELIX ZUBIA OLASKOAGA / 23
- **Hiruko txikian** Beren bakeek. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertso berriak** Pilarika bezperatan jarriak. JEXUX MARI IRAZU / 24

Erdiko kaiera

- **EHAZE.** Antzerki zaleak mugimenduan. OIER GUILLAN / 25
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 28
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** MIKEL ASURMENDI / 31
- **Ihesi Durango (Bizkaia).** Historiako altxorren azoka. AMAIA UGALDE / 32
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Josep-Lluís Carod-Rovira:** «Orain politikak zahar usaina du». GEMMA AGUILERA/EL TEMPS / 39
- **Aurrezki kutzak.** Pribatizatze eta bankarizatze bidean. DANIEL UDALAITZ / 42
- **Hizkuntza Plangintza Ikastaroa.** Soziolinguistika dosia ikasle gosetiei. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Europako botoak atzetik aldarazten dituzten lobbyak. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Ongizate estatuaren ordezkoko bila?** BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI / 50



“Orokorrean ez dut jendea maite”

Koldo Almandoz
The Balde-ko zuzendaria

Film laburrek bide luzea egin dezaketelako...

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Hara bere lehen laburra New York-en grabatu zuena!

Eta zer meritu dauka horrek? New Yorken filmatzea hemen filmatzea baino askoz errazagoa da, eta egiari zor, ez nintzen joan nire curriculumean sortzaile askok ezinbesteko-tzat duten “New York” lerroa idaztera.

“Euskalduna naiz eta harro nago...!”

Noiz arte segituko dugu ekiparazio bila? Noiz arte konplexu horiekin? New Yorkeko taberna batean irakurritako poemari *Berriako* orrialdea eskaintzen zaio. Poema bera Zarauzko taberna batean irakurri eta ezer ez. Zer gertatzen da hemen?

Film laburren zirkuituak ia klandestinoak dirudiela!

Denak azkarra eta kontsumitzeko erraza izan behar duela dirudi, Youtuben ez bazau-de ez zarela existitzen. Laburra ala luzea, norbaiti interesatzen zaio zinea? Aretoak ikusita...

Badakizu... krisia... sarrerak zazpi euro...

Kulturak doakoa izan behar duela aldarrikatzen dutenek euren burua progresistatzat dute, baina izatez, fatxa batzuk dira!

Segi lagunak egiten.

Reala salbatzeko Aldundiak denon dirua erabiltzen du, sozio-txartelek dirutza balio dute, eta kalera sutan atera beharrean, 70 euro kostatzen den kamiseta jantzita joaten gara Anoetara. Horretarako ez dago arazorik, ezta?

Badakizu, denak “sortzaile” garenetik...

Denak gara argazkilari, denak idazle, denak zinegile... Egia da medioak demokratizatu direla, baina talentuak ez dauka demokrazia-rekin zerikusirik.

Odon Elorzak Donostiarentzat dituen asmoez ari zara?

Hiri puta hau ostalaritza eta turismoari begira baizik ez da bizi. Donostian mekanikari edo delineantea bazara ez duzu ezer merezi. 2016an Europako kultur hiriburu Kordoba izendatzea da Donostiari gerta dakiokeen onena.

Tabakalera Kordobara eraman nahian, ala?

Politikari gehiegi dago gauzak ondo ateratzeko. Dirua inbertitzea erabakitzen dutenean eurek agintzen dutela uste dute, baina ez da euren dirua, denona baizik. Dena den, Reala-rekin gertatu dena ikusita, baliteke merezi ditugun agintariak izatea.

Ez zara Realzalea izango, ezta?

Reala larrutzen dut, baina realzalea naiz. Telebista ikusten lau ordu segidan pasa ditzaket nire burua idiotizatzen. Izorratzen nau, baina kritikatzan dudan guztiaren parte sentitzen naiz.

Inoiz otu zaizu psikoanalistarenean zita hartzea?

Ez, gauzak erlatibizatu, eta zentzu makroan ikusi beharrean zentzu mikroagoan ikusten ikasi dudalako. Orokorrean ez dut jendea maite. Ingurukoak eta bizitzan aurrera bul-tzatzen nautenak inporta zaizkit. ■

Eliza

Norabide aldaketa Munilla eta Izetarekin


Joan Paulo II.a zenak hasitako inboluzio prozesua Hego Euskal Herriko eliza katolikora heldu da indarrez. Bilbo eta Donostiako gotzain berrien izendapenekin, Vatikanok, Madrilen laguntzaz, sektore atzerakoiena jarri du agintean. Kristau komunitatea ez da isilik geratu ordea: Bizkaian nahiz Gipuzkoan, haserrea da nagusi apaiz, erlijioso eta laikoengan.

UNAI BREA

FEDEDUN FALTAN, azken hamarkadetan hautsaz betetzen joan dira Bizkaiko eta Gipuzkoako elizak, mundu katoliko osokoak bezala. Orain harrotuta dago pilatutako hauts hori: Elizan ematen ari den inboluzio prozesua bete-betean gurerira iritsi da, eta kristau askoren haserrea sortu du. Ahots kritikoen protestak eragin dituzten arrazoiak lau izen emanda laburbildu daitezke: Mario Izeta, Jose

Ignacio Munilla, Joxe Arregi eta Jose Antonio Pagola. Lehen biek –Bilboko eta Donostiako gotzainak, hurrenez hurren– Erromatik datozen haize kontserbadoreak ordezkatzeko dituzte; Pagola eta Arregi berriz, Elizaren agintariek isilarazi nahi duten korrontearen ikur bihurtu dira.

Bizitzaren kasualitate horietako batengatik, Joxe Arregik Deustuko Unibertsitatean



DANI BLANCO



EFE



JOSE IGNACIO MUNILLAK UTZIA

Ezkerrean, Mario Izeta, abuztutik Bilboko gotzain den gernikarra. Donostian kargu bera duen Jose Ignacio Munilla (eskuman) Jose Maria Setienen aurka oldartzeagatik nabarmendu zen Zumarragako parrokoa zen garaian.

daukan bulegoaren ondoan elkartu gara Marije Goikoetxea bertako irakaslearekin. Goikoetxea Kristau Sareetako kidea da. Uztailan ekitaldi bat antolatu zuten Bilbon, beste eliztar batzuekin batera, “Neu ere hitzaren eske nator” leloarekin. Arregiren *Hitzaren eske nator* idatziaren espirituarekin bat egin nahi zuten.

“Gizon eta emakume helduak garen heinean, aldarrikatu nahi genuen geuk ere erabakiak hartu nahi ditugula komunitatearen barruan, besteak beste geure ordezkariak aukeratzeko garaian”, dio Goikoetxeak. Hala, Joxe Arregik eta Jose Antonio Pagolak jasandako tratua ez ezik, Euskal Herrian berriki izendatutako gotzainak aukeratzeko modua kritikatu zuten ekitaldian bildutakoek.

Sektore atzerakoienaren ordezkariak

Ia mende erdi da Vatikanoko II. kontzilioa egin zela. Elizak inoiz hartutako erabakirik aurrerakoienak biltzar hartan hartu ziren, nahiz eta, Marije Goikoetxearen berbak erabiltzearen, “planteamendu hutsean geratu ziren, ez zen hori organikoki garatu”. Hala ere, Eliza barruan askok sinetsi zuten kontzilioak aldarrikatutako norabide aldaketan, eta indar handia egin zuten, nork bere txokoan, hori gauzatu zedin. Munduarekin harreman estuagoa izango zuen Eliza nahi zuten, eta aldi berean era horizontalagoan antolatuta egongo zena. Eliza modernoagoa, garaiari egokitua. Goikoetxearen esanetan, Espainiako Estatuaren barruan Euskal Herriko eta Kataluniako elizek eman izan dute bide horretan aurrerapauso gehien.

Alabaina, boterea hartu zuenetik, 1978an, Joan Paulo II.a Aita Santuak kontzilioa edukiz husteari ekin zion. Prozesuak segitzen du,

1978an, Joan Paulo II.a Aita Santuak Vatikanoko II. kontzilioa edukiz husteari ekin zion. Azken urtean euskal Elizan gertatutakoa prozesu horren isla da

orain Benedikto XVI.a buru duela, eta azken urtean euskal elizan izandako gertakariak horren isla dira. Zehatzago esateko, esan daiteke Mario Izeta eta Jose Ignacio Munillaren izendapenekin burutu egin dela Bizkaiko eta Gipuzkoako elizen “birbideratzea”, orain dela hamabost urte Ricardo Blazquez Bilbo-

ko gotzain izendatuz hasi zena. Den-dena, Espainiako Gotzainen Batzarreko buru Antonio María Rouco Varela gidatuta. Zeren, Erromatik datozen haize ultrakontserbadoreak Madrilatik igarotzen dira Euskal Herrira heldu baino lehenago, eta ez alferrik. Komeni da gogoratzea mundu katoliko osoan gertatzen

ari den inboluzio prozesuari, gurean gatazka politikoaren osagaia gehitu behar zaiola.

Vatikanoa alde batera, euskal Eliza bestera

Ezin esan euskal Elizak modernotasunaren gailurra jo duenik, ez barne antolamenduan ez moralaren arloan, baina behintzat, Vatikanoko II. kontzilioaren ildoan sinesten zuten zenbaiten ekimenez, aurrerapauso batzuk egin dira, txikiak izanagatik. Erroman Karol Wojtylak kontzilioa edukiz husten zuen bitartean, Bizkaiko eta Gipuzkoako elizbarrutietan justu kontrako noranzkoan egiten ari ziren. Besteak beste, pastoral kontseiluak sortu ziren. Bertan abadeak, erlijiosoak eta laikoak daude, nahiz eta ez behar lukeen proportzioan, Eliza Gara elkarteko Koldo Rodriguez Bengoak salatu duenez: “Laikoak kristau komunitateen %95 dira, baina ez daude neurri berean ordezkaturik pastoral kontseiluetan”.

Organo horiek praktikan izan duten balioa ere zalantzan jartzen du, orain dela urte bi arte erlijiosoa izan den Rodriguez Bengoak: “Bitan izan naiz Bizkaiko Pastoral Kontseilu-

ko kidea, eta bigarrenenez izendatu nindute-nean, hura lorontzi bat besterik ez zela esatera iritsi nintzen, lorontzi garestia, hori bai". Pastoral kontseiluak, hala daude definituta, aholkularitza organoak dira, ez daukate ezer erabakitzeke gaitasunik. Pribilegio hori gotzainak du eta, gotzain berria aukeratu behar denean, Aita Santuak zuzenean.

Estiloak eta estiloak daude, hala ere. Gotzain berria aukeratu behar denean, esaterako, Erromako batzorde bat arduratzen da hiru izeneko zerrenda prestatu eta Aita Santuari aurkezteaz, hark aukera dezan. Zerrenda osatzeko, batzorde horrek nahi duen edonorengana jo dezake kontsulta egiteko. "Niri sekula ez didate kontsultarik egin", dio Marije Goikoetxeak, "baina beste batzuei bai, eta badirudi azken izendapenetrako horien iritzia ere ez dela eskatu". Lehen-goia gutxi iruditzen zitzaion Kristau Sarea eta Eliza Gara bezalako taldeei; oraingoak haserre bizian jarri ditu.

Atzerapausoa ez da, talde hauen iritziz, hainbestekoa, lortuta zegoena ez zelako gehiegi. Arazoa da Bizkaiko eta Gipuzkoako Eliza, ezarritako gotzainekin, orain arteko bidea eten eta aurkako noranzkoan jarriko dela: "Izendatu dituzten apezpikuek guztiz ikuspegi inboluzionista daukate hasita zegoen prozesuarekiko", uste du Goikoetxeak, "baina erne, 'hasita' diot, ez baitzegoen ezer lortuta".

Goikoetxearen iritziz, norbaitek erabaki du II. kontzilioaren filosofiari jarraitzeak hustu egiten duela Eliza, "deskafeinatu", nolabait. "Joan Paulo II.a Erromara ailegatzear batera, analisi hori egin zuten: kontzilioak gure nortasuna galarazten digu. Eta zein da gure nortasuna? Bada, geu gara egiaren jabeak lege naturalari eta Jaungoikoaren hitzari dagokienez". Jendartearekin harrema-

nean egoteak nortasun hori ahultzen duenez gero, harengandik urruntzen da Eliza. Ez da harritzekoa, beraz, jendartearen zati gero eta handiagoa Elizari bizkarra emanda bizitzea, baita fededun ugari ere.

Moral pribatua, gatazka zaharra

Dibortzio horretan, moral pribatuaren esparruak berebiziko garrantzia dauka. Boterearen zeharo lotutako esparrua da, Marije Goikoetxearen ustez: "Kasu honetan ezin dut Kristau Sarearen izenean hitz egin, ez baitugu gai honi buruzko barne eztabaidarik izan. Baina nire iritzia da arlo honetan ez dela sekulako aurrerapausorik egin ez Bizkaian ez Gipuzkoan. Historikoki, pertsona jakin batzuek erabaki dute zer den ona eta zer txarra norberaren moralari dagokionez. Jainkoarengandik hurbil dauden pertsonak dira, hau da, abadeak. Gainerakoek hari obeditu beste ardurarik ez zeukaten. Baina eredu horrek ez du balio XXI. mendean bizi garengotzat: gutako bakoitzak libreki erabaki dezake bere sexualitatea, bere bizitza afektiboa zelan bizi, beste bati kalte egiten ez badio behintzat. Vatikanoko II. kontzilioak bere egin zuen balore sistema hori teoriaran, arazoa da horrek boterea kentzen diela abadeei".

Koldo Rodriguez Bengoaren ustez, sexualitatea oso gai garrantzitsua da, Eliza katolikoak kontzientzien kontrol lanabes modura erabiltzen baitu: "Zelibatoa, abadeak ezkontzea... norberaren borondatearen esparruan egon beharko lirateke. Hori oso makurra da. Zuk pertsona bat hartzen duzu oso gaztea denean, ezkontza galarazten dion sistema batean sartzen baduzu, alegia, Elizatik bizitzera behartzen baduzu... Abadeak ezin du beste ogibiderik eduki, oso gaizki ikusita dago, horrek elizaren kontrol ekonomikoa ezabatuko lukeelako. Dena dago lotuta: bote-

Jende asko aurka eduki arren, Mario Izetak zuhur jokatzeko badu Bilboko elizbarrutiko karguak izendatzean, posizio erosoan lor dezake, Munillak ez bezala



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.





DANI BLANCO

rea, emakumea eta sexualitatea, hiru gauza horiek... Eta familia eredu, noski”.

Moral pribatuarekiko betiko jarreraren temati, eta barne antolamenduarenean eskuratu-tako demokrazia zantzu apurak zapuzte bidean, lan zaila du Elizak arimak bereganatzea, bere agintariek horren beharra behin eta berriz azpimarratu arren. Aldiz, errazago dirudi barneko sektore asko aldenduz joatea, inposatu nahi den eredu guztiz hierarkikoan deseroso. Bizkaiko eta Gipuzkoako gotzain berrien izendapenak eredu horren erakusle argia dira, ez bakarrik egin diren moduagatik, baita aukeratuak izan diren apezpikuen profilagatik ere bai. Biak dira bertokoak, gazteak, euskaldunak eta kontserbadoreak. Euskal abertzaletasunarekiko kidetasuna nekez leporatuko die inork, gainera.

Ezinegona elizbarrutietan

Hitz lauz esateko, ez Mario Izeta ez Jose Ignacio Munilla ez dira ordezkatu behar dituzten komunitate kristauen gustuko. Zenbakizko datuek kontrako jarrera horren dimentsioa ulertzen lagundu ahal digute. Batetik, Jose Ignacio Munillaren izendapenak berehalako hainbat erreakzio eragin zituen Gipuzkoako elizbarrutian: Juan Maria Uriarte aurreko gotzainarekin ibilitako bikario orokor biek kargua utzi eta Erromara alde egin zuten, ikasketak aitzakia. Beste bikario bik,

Joxe Arregik jasandako tratuak protestak eragin ditu Bizkaiko eta Gipuzkoako elizbarrutietan. Kristau Sareko Marije Goikoetxearen ustez, “iritsi da unea ‘aski da’ esateko; ezin dugu onartu batzuk giza eskubideen aurka aritzea gure izenean”.

Caritaseko arduradunak, gotzaindegiko idazkari orokorrak eta prentsa buruak beste horrenbeste egin zuten, hain urruti joan gabe ere. Hori gutxi balitz, herrialdeko apaizen %77k Munilla izendatzearen aurkako agiria izenpetu zuten.

Gotzain berriak, behintzat, zuhur jokatu du Jose Antonio Pagola bikario ohiaren afe- ran, eta ez du horretaz iritzirik plazaratu. Hark idatzitako *Jesus. Hurbilketa historikoa* best-sellerra liburu-dendetatik desagertu da Vatikanoren presioagatik, eta egileak berak kritika latzak jaso ditu Elizaren sektore erreakzionarioengandik; horren aurrean, joan den martxoan 250 apaiz gipuzkoarrek Pagolaren elkartasuna adierazi eta hark jasandako zentsura kritikatu zuten idatzi publiko batean. “Pagolaren kasuak ederto adierazten du elizako agintea noraino heltzeko prest dagoen”, diosku Marije Goikoetxeak, “Pagolaren liburuak jende askori erakutsi dio Nazareteko Jesusi jarraitzea Aita Santuaren aginduak betetzea baino askoz garrantzitsuagoa dela, eta hori ondoegi ulertu da”. Fedea vs. erlijioa.


Esandakoari gehituz gero Joxe Arregirekin gertatutakoa, erraz ulertzekoa da Gipuzkoako elizbarrutian giroa zeharo gaiztotuta egotea. Apaiz, erlijioso eta laikoen portzentaje handi bat aurka duen Munillak urtebete egingo du karguan datorren azaroan. Den-

bora horretan, etsipena zabaldu da, gipuzkoar elizaren barrunbeak ondo ezagutzen dituen iturri batek adierazi digunez. Jose Maria Setien eta Juan Maria Uriarteren garaietan ziharduten Pastoral Kontseilua eta Apaiz Batzordea geldidau de momentuz, nahiz eta Muni-llak, ia lerro hauek idazten ari garen une berean, biak berrosatzeko asmoa agertu duen hedabideei zabaldutako pastoral egitasmoan. Ez da kazetariok gotzaindegia berri dugun lehen aldia, bidenabar. Egoera deserosoan dagoela jakitun, ematen du Jose Ignacio Munillak irudia landu nahi duela behintzat, azken asteotan Donostiako Artzain Onaren katedraletik iritsi zaigun prentsa ohar uholdea ikusita.

Izetaren aurkako oposizioak urte bi dirau

Bizkaiaz beste horrenbeste esan daiteke. Goizegi da Mario Izetaren lana epaitzeko, baina dagoeneko agerian geratu da elizbarrutiaren gehiengoak ez duela bizi estimatzen. Izan ere, orain dela urte bi, Izeta Kordobatik ekarri eta gotzain laguntzaile izendatu zutenean, Pastoral Kontseilua aurka agertu zen. Koldo Rodriguez Bengoa Kontseiluko kidea zen orduan: “80 lagun inguru geunden bilduta eta 35ek hitz egin genuen Izetaren izendapenaz; 31k, aurka”. Horrek ez zuen ezertarako balio izan, lorontzia lorontzi baita. Antzuak izan ziren, halaber, une hartan Bilboko gotzaindegian pisu handia zeukaten zenbait ahotsen kekak: salatu zuten, inork ez zien Izetaren etorreraren berri eman, are gutxiago iritzia eskatu.

Aurtengo ekainean, Bizkaiko 677 abade, erlijioso eta laikok, elizbarrutiko zenbait kargu esanguratsu barne, agiri bat sinatu zuten, eta Renzo Fratini nuntzioari –Vatikanoaren ordezkaria Madrilén– igorri zioten.



Jesus. Hurbilketa historikoa, Jose Antonio Pagola Donostiako bikario ohiak idatzitako liburua. 60.000 ale saldu ziren, Vatikanoren eta Espainiako Gotzainen Batzarraren presioaren ondorioz liburu-dendetatik kendu zuten arte. Martxoan, zentsura hori salatzeke idatzitako kaleratu zuten Gipuzkoako 250 apaizek.

Idatzian, elizbarrutiko kideek gotzain berriaren aukeraketan parte hartzerik ez izatea salatu zuten. Ordurako, denek zekiten Mario Izeta izango zela hautatua. Azkenean, zer gerta ere, Aita Santuak abuztuan egin zuen izendapen ofiziala, Bilboko Aste Nagusi betean.

Jesarlekua berotzeko astirik eduki ez duela, ez dago hain argi –ez Munillaren kasuan bezain argi, bederen– Izetak zer giro izango duen inguruan. Laikoen artean ez da estimatua, baina laikoen iritzia, Eliza katolikoan, hutsaren hurrengoa da, honezkero argi geratu denez. Abadeen jarrera, berriz, ez da Gipuzkoakoek Munillarekiko duten bezain erabatekoa, sinadurak sinadura. Izetak ia urtebete dauka orain gotzaindegiko karguak izendatzeko, eta egiten dituen hautuek zeresan handia edukiko dute bere posizioa finkatzeko orduan. Munillak baino abiapuntu lasaia du, ez baitu jasan Donostiako gotzaindegian izandakoaren antzeko “ihesaldirik”. Eliza barruko ahotsen ustez, zuhurtiaz jokatzeko badu Izetak posizio eroso lor dezake, elizbarrutiaren zati esanguratsu bat aurka eduki arren.

Zentzu horretan, adituek funtsezkotzat daukate Angel Mari Unzueta bikario orokorrak hartuko duen bidea. Unzueta izan da azken hamarkadetan Vatikanoko II. kontzilioaren arima hobekien islatu duen gizona Bizkaian. Hierarkian gora egin du, abade gehienak alde ditu, eta beti egon da gotzain kargua eskuratzeko kineletan ondo kokatuta. Ez du lortu, bistan dena. Izetaren kontrako oposizio mugimendu bat gidatuko balu, gotzaina oso egoera deserosoan geratuko litzateke. Momentuz Unzuetak ez du halakorik egin, eta askoren ustez ez du egingo Izetak bere kargutik bota ezean. Unzueta oraingo lekuan mantenduta, lasai antzean bizi liteke apezpikua. ■



Natura sentitu

Landa Turismoa
Enpresa Zerbitzuak



Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

Martin Lasarte

«Ekilibrista lana da gurea»

Nork esan zuen futbol munduan beti antzeko erantzunak entzuten direla?

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Bazen behin, 60ko hamarkadan, Montevideo-ko kaleetan jostatzen zen haur bat...

Gure eskola izan zen Salesianoen ikastetxe parean geneukan etxea. Bigarren etxetzat genuen eskola, bertan ibiltzen baikinena hara-hona jolasean. Futbolearen aritzen ginen gehienbat, halako eraikin batek eskaintzen zituen aukera guztiak baliatuz. Zapatarari eta mekanikari ofizioak ere ikas zitezkeen, eta horri esker, beti zebilen jende andana, beti zegoen antzoki ilun-ilun bat irekita bere gortina misteriozuekin, eta gu hantxe, bihurrikeria handiena nork egingo. Horixe zen gure jostalekua, hori eta orduko kalea. Askoz auto gutxiago zebilen errepidean, eta espaloian nahi-erara ibili zitezkeen baloia oinetan. Kaleko futbolariak diren eta ez diren trikimailu guztiak ikasi behar izaten ditu, eta hori gutxi balitz, lehia odolean darama. Egun, asko aldatu dira bizimodua eta ohiturak, baina alferrik da sasoiei buruz hitz egitea, bakoitzak dauka bere berezitasunak eta kito. Gaurko haurrek ordenagailua, MP4-a, edo telebista bezalako arreta-gune asko dituzte. Guk futbolearen jokatzen genuen, beste aukerarik ez zegoelako.

Orduan jolas hutsa zen zuretzat futbola ala bizibide posibletzat ikusten zenuen?

Ikasle ona nintzen, dohatsua, eta Sekundario-ko 4. mailara arte oso nota onak ateratzen nituen. Baina urte hartan hepatitis-a diagnostikatu zidatenez urtea galdu behar izan nuen, eta aurrera egitekotan, ikasgai guztiak oso denbora tarte txikian gainditzera derrigortu ninduten. Ordurako, futbolearen nahiko ondo nengibilen, eta bizitzaren gorabehera horrek halako haustura bat sentiarazi zidaten ikasketik. Hortik aitzina, ikasten segi nuen baina

ez zen gauza bera. Ez neukan ordura arteko kuriositate eta grinarik. Horregatik, lehen mailako futbolaria izateko aukerak agertu zirenean, ikasketen kaltetan desorekatu zen balantza. Baina ezinbestekoa iruditzen zait egungo futbolariak euren burua futbolaz gaindi formatzea. Uste dut ikasketek informazioa xurgatzeko eta erabaki azkarrak hartzeko gaitasuna garatzen dutela, eta hori oso baliagarria da futbolerako. Mundu errealean daude futbolearen hobeto jokatzearen erremintak. Horregatik saiatzen naiz nire jokalariek bizitzan kezka eta interesguneak izan ditzaitez, besterik ez bada hizkuntza bat ikasi edo informatika ikastaro bat egin dezaten, ez daitezela geldirik egon euren zilborrari begira.

Aita andoaindarra izaki, zer harreman zenuen txikitik Euskal Herriarekin?

Aita zenak beti hitz egin digu maitasunez bere lurralde buruz, ez diot sekula alde egin izanaren minik sumatu. Urte haietan, hona etortzea espedizio bat zen, dena zen luzeagoa, dena

Nortasun agiria

Montevideon jaio zen 1961eko martxoaren 20an. Jokalari gisa A Coruña-ko Deportivo eta Uruguai-ko taldeetan jokatu zuen, bertako Nacional de Montevideorekin Libertador-en Kopa eta Interkontinental irabaziz. Entrenatzaile gisa Hego Amerikan eta Dubain lortutako emaitza onei esker fitxatu zuen iaz Realak, eta bere eskutik heldu zen lehen mailarako igoera.





garestiagoa. Baina aitak informazio asko pasarazi zigun gure haurtzaro eta nerabezaroan eta damu naiz informazio hori kapitalizatzen ez asmatu izanaz. Esaterako, ikasi nezakeen euskaraz ikasi nuena baino gehiago. Dena den, nire lagun gehienek ez bezala, banekien itsasoz bestaldera bizimodu desberdina zerman mundu bat bazela. Hemengo osabak bisitan etortzen zirenean sekulako parafernalia muntatzen zen etxean eta “Europako osabak datoz!” esaten ziguten. Gero, adinean aurrera joan ahala, eta osaben janzkera eta bizimoduari erreparatuz, beti iruditzen zitzaidan gure aitak hanka egin zuenetik Euskal Herrian asko hobetu zirela gauzak, eta alderantziz, Uruguain dezente egin genuela atzera.

Zure jatorri hegoamerikarraz harago hemen- goa dirudizula irakurri dut medio askotan.

1983an, hamar urtez Elxen jokatu eta Realaren urrezko aroa ezagutu zuen taldekidea izan nuen, inondik ezagutzen ez ninduen, eta lehen entrenamenduan “zu euskalduna zara!” bota zidan. Aurpegira begiratuta berehala antzematen omen zitzaidan. Ez dakit hala denentz, baina egia da Euskal Herriko ohitura askok betitik izan dutela tokia nire bizitzan. Esaterako, aitarekin sarri-sarri joaten ginen pilota partidak ikustera, etxean patata-tortilla eta legatza saltsa berdean jaten genituen, egunero ikusten nuen aita Elozegi txapela jantzita kalera ateratzen... Gure aita “El Vasco” zen auzoan, eta hemen usu egona nintzen oso egun gutxi behar izan nituen egokitzeko. Baina hala ere, Realak fitxatu ninduen egin nuen lehen gauza Donostian hara eta hona ibiltzea izan zen. Jendeak zer eta nola jaten zuen begiratzen nuen, zertaz hitz egiten zuen,

zer ohitura zuen, eta Realari buruzko zerbait entzuten nuen bakoitzean belarria luzatzen saiatzen nintzen. Ezinbestekoa iruditzen zait inguru soziala arnastu eta zeure egitea.

Irakaspen ederra futbola burbuilatzat dutenentzat.

Idea bat transmititzeko ez daukazu parekoa konbentzitu beste erremediorik, eta pareko gehienak bertakoak badira, bertako klabeetan hitz egitea da konbentzitzeko biderik laburrena. Adibidez, banekien nire hizkera deigarria egingo zela, baina oso argi neukan zer izan zen Real, eta baita zer izan behar zuen ere. Inork baino garbiago neukan norantz egin behar genuen bultza. Orintsu arte taktikaren gatibu izan naiz, baina denborak erakutsi dit taktika baino alor garrantzitsuagoak badaudela. Konbentzimendua da arrakastarako metodoa. Jokalariak konbentzitututa badaude dena da errazagoa, berdin dio bost aurrelarirekin eta atezainik gabe jokatzeko baduzu. Konbentzimendua transmititzeko, ordea, ezinbestekoa da burbuilatik irten eta inguru sozialari buruzko informazio erreala edukitzea.

Presioa erreala da?

Bai, baina goi-mailaren joko-arauetako bat da, eta onartzen ez baduzu, jai daukazu. Futbola izango da munduko multinazionalik handiena, eta horrek sortzen dituen frustrazio eta interesez harago, inguratzen gaituen ororekin bizitzen ikasi beharra daukagu. Badakit batzuetan nekeza dela entrenamendutik zizko eginda atera eta 20 kazetari eta 50 ume zain izatea. Ezin duzu ahaztu ordea, erretiratzean orain nazkatzen zaituena faltan bota dezakezula, eta orduan beranduegi izan-

go dela. Denoi pasako zaigu olatua gainetik, horregatik dagokigu aparraz gozatzea, urte batzuk barru atzera begira jartzean, aparraren oroitzen goxoa eduki ahal izateko. Horretarako, naturaltasuna da gakoa, gauzak datozen bezala bizitzea.

Zer da naturaltasuna, jokalariek eta prentsak entrenatzailea bota dezaketen munduan?

Zintzoa izatea, bakoitzari engainurik gabe dagokion informazioa ematea. Bakoitzak bere lana onez onean eginez gero ez da arazorik egoten, egoerarik gorriena izanda ere. Pentsa, prentsak ez nau sekula nik nire burua kritikatu dudana baino gogorrago larrutu.

Garbi daukat gaur goratzen nautenek bihar egurtuko nautela, atzo egurtzen nindutenek gaur goraiatzuten nauten bezalaxe. Jokalariekin gauza bera. Badakit proiektuan eta egiten ari den lanean federik ez badauka jokalaririk batek entrenatzailea boikoteatu eta saboteatu dezakeela, fede itsua daukanean entrenatzaileari aurpegia ateratzen ahal dion gisa berean. Horregatik da ekilibrista lana gurea, horretan datza zailtasuna. Nire kasuan, ez dut nire nukleo familiarra berrosatzerik lortzen, beti nagoelako hurrengo igandean gertatuko denaren zain. Ezinezkoa da emaitzen arabera bizimodu orekatua eraikitzea. Baina horrela da eta horrekin bizi behar duzu. Edozein unetan has daiteke gainbehera.

Gizarteak futbolarekin harreman pasionala duelako, akaso?

Beti izan dute jokoek gizartean leku garrantzitsua, eta egun, askorentzako futbola da gizarteak duen arnas eta ihesbide behinena. Are gehiago, zenbait herritan dauden arazoak egonda, pasio hori ez balego, futbola ez litzateke existitu ere egingo. Baina pasioa da jendea masan futbolera bultzatzen duena, eta masa

hori da futbola biziarazten duena. Igoera ospakizunean Markel Olanok krisi garaiotan jendea ilusioa pizteagatik eskerrak eman zizkigunean futbola zirko erromatarraren antzekoa zela pentsatu nuen. Baina bai, egia da futbolak errealitatea desitxuratu eta baztertzeko gaitasuna duela, garaipen batekin dena estaltzen saiatzeraino. Munduan dena da politika eta politikariei irabazleekin agertzea gustatzen zaienez, gauzak ondo doazenean dena irribarretsu eta begi onez ikusten da, eta okertutakoan, irribarreak zaplazteko bihurtzen dira.

Zer da entrenatzaile ona zuretzat?

Gizatalde baten gidaritzatik helburu kolektibo bat betearaziko duten ideia limurtzaileak transmititzeko gai den pertsona. Eduki dezala

egiten duenarekiko pasioa, izan dadila frustrazioekiko tolerantzia, onartu ditzala kritikak zein lehiakortasunaren gorabeherak, eta egunerokoan, bere ingurua profesionalki eta pertsonalki hazten lagundu dezala. Esaterako, niri lan handia eskatzen dit entrenamendu eta hitzaldien prestaketak. Asko eta orotarik irakurtzen dut, eta irakurri ahala

ideiak apuntatzen joaten naiz, aurkariaren eta momentuaren arabera hitz egokienak erabili ahal izateko. Batzuetan alegia edo egoera soil bat planteatzen diet jokalariei, beste batzuetan diskurtso fantasiosoagoa. Inoiz gertatu izan zait dena esanda egotea, neuk ahorririk ireki gabe jokalaria puntu-puntu egotea. Baina entrenatzaile onak etengabe pentsatu behar du "non gaude?", "nola?", "nora goaz?", "haize alde edo haize kontra?", "zer espero da gugandik?"... Egutero ibili behar duzu zure ideia nagusia ajustatzen, moldatzen, egokitzeko, zuzentzen. Beti zabaldu behar duzu erabateko ziurtasuna eta sendotasuna, baina era berean, beti izan B plana prest. Ez da dirudien bezain erraza.

"Munduan dena da politika eta politikariei irabazleekin agertzea gustatzen zaienez, gauzak ondo doazenean dena irribarretsu ikusten da, eta okertutakoan, irribarrea zaplazteko bihurtzen da"



DONOSTIA: Hernani, 13
BILBO - GASTEIZ
 Zuluaga Bitxitegiak: Galdakao eta Zornotza
www.eguzkilorejoya.com

EGUZKILORE®
 Zuluaga

OFF THE RECORD

Uruguai

Behera begira sartu da elkarrizketa-gelara. Uzkur, lotsati. Guri kortesiazko hiru-lau kontu galdetzen utzi gabe, ekin dio berak izotza hausteari. Grabagailua piztu orduko piztu da bera ere, eta hitz bakoitzaren atzean antzematen zaizkio bere lanean duen fedea eta pasioa. Elkarrizketa bukatu eta argazki sesioa hasi duenean, Donostian bizi diren uruguaitar batzuk ekarri dizkio hizpidera argazkilariak. Grabagailuarekin burua nola, piztu zaizkio begiak, eta jakin-mina ase arteko etenik ez du izan. Arrakastak ere ez du herri-mina sendatzen. Orhiko txoriak Orhi maite.



Pertsonekin lan egitea beti da zaila...

Baina denak gara pertsonak, taldeko izarretik hasi eta arropa garbitzen duenera arte. Askotan esaten diet jokalariei kolaboratzaileak kolaboratzaileak direla eta ez esklaboak. Zergatik batu behar dituzte guk lurrera botatzen ditugun botila hutsak? Zergatik ez ditugu utziko peto guztiak elkarrengandik gertu pila-tuta? Beste batzuek jasotzen dituztelako ibili behar dugu baloiak pikutara botatzen? Ez, ez, hemen denak gara pertsonak, eta denak gara taldekide. Horregatik, erabaki bakoitzean, pertsona hartzen dut kontuan. Kontziente naiz, bere bizitzako momentu eta aldartearen arabera, delibero hori gaizki esplikatzen badiot puska baterako hondoratu dezakedala. Beti saiatzen naiz nire jokalarien egoera pertsonal eta pribatua jakiten. Pertsona bezala autoestimua zeruan daukanak futbolari bezala ere halatsu edukiko du, eta alderantziz. Pentsa, iaz jokalaria bat gaizki ikusten nuen, ez zuen bat parean jotzen, eta ondora hurbildu eta zer zuen galdetu nionean amona larri zeukala erantzun zidan. Gure aldagela ez da horma bat, zerbait esan behar duenarentzat beti irekita dagoen atea baizik. Ni ere jokalaria izandakoa naiz, eta egun agindupean dituda-


nek urratzen ari diren bidea aspaldi urratu nuen. Badakit zer sentitu dezaketen, eta badakit giza-harremanean oinarritzen dela nire ofizioa.

Bizitzen den bezala jokatzeko dela, alegia.

Mundua geroz eta globalizatuagoa eta uniformizatuagoa den arren, dudarik gabe. Zergatik uste duzu brasildarren jokoa alaitasuna, sanba, eguzkia eta hondartza dariola? Zergatik da argentinar eta uruguaitarren jokoa tristeagoa, grisagoa, euri eta hodeiek zaildua, tangoaren erritmokoa? Entrenatzaileak sartu dezake eskua, baina izaerak izaerak dira, eta Jaungoikoa ez garenez, jokalariei profesional hobeak izaten baizik ezin diegu lagundu. Esaterako, nik damuz ukatzen dut jokalaria nintzeneko bizitza zati bat. Nire lanbideari lotuegi bizi nintzen, eta horretarako kondena-tu nuen nire emaztea. Ez zegoen gaurik, ez zegoen irteerarik eta kanpoko otordurik. Dena zen garbi jan, atsedean hartu, partida, entrenamendua... Hori oso ondo dago, baina bizitza bakarra da, denerako denbora ematen dizu, eta zuk denean probetxua ateratzen jakin behar duzu. Lanean zein lanetik kanpo topera bizi behar duzu beti. ■

SaiazGetaria
H o t e l a

Roke Deuna, 25 • GETARIA
www.saiaszgetaria.com • Tel.: 943 140 143



Intelligentzia landu aurretik egin beharrekoak

0-6 urte artean garatzen da garunaren %90a eta funtsezkoa da adin horretan oinarriak finkatzea. Geroko ikasketa prozesuan arazo bihurtu ez daitezen,

4-5 urteko haurren burmuinek ikusmena, entzumena eta motrizitatea ondo prozesatzen al dituzten aztertzen eta lantzen dute Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolan.

Prebentzioan programa eredugarria du aurtengo Nafarroa Oinez antolatu duen ikastetxeak.

Testua eta argazkiak:
MIKEL GARCIA

4 URTEREkin lengoaian, arretan... zailtasunen bat duten haurrak identifikatzen dituzte Paz de Zigandako irakasleek, ondoren neurozientzietan doktore den Maria Lópezek ikus ditzan. Haurren burmuinaren garapenean espezialista da López espainiarra eta urtero etortzen da Atarrabiako ikastolara: 4 urte dituztenean ikusten ditu umeak, ikasturte hasieran; berak emandako aholku eta ariketekin hobekuntzarik egin al duten jakiteko itzultzen da ikasturte horren bukaeran; eta bilakaeraren emaitzak aztertzeko 5 urte dituztenean bueltatzen da. Guztira hiru bider, Lehen Hezkuntzarako jauzia egiterakoan, irakurketa eta idazketara, zailtasun txiki zena arazo larri bihurtu ez dadin. “Gure altxorra da Mariak oso ondo identifikatzen duela umeak zer gertatzen zaion, eta hori abiapuntua da arreta pertsonalizatua egiteko. Irakasleentzat abantaila handia da, askotan ez dakitelako zein den zehazki umeak duen arazoa, eta Mariak berehala argitzen du”, dio Iñaki Erroz ikastetxeko zuzendariak.

Hasteko, haurren garapen fisiologikoa aztertzen du Lópezek; alegia, osasun arazorik duen. Begetazioek edo mukiek entzumen arazorik sortzen al dioten, arreta jartzen ez



Batxilergoa hartuko duen eraikina egin nahi du Atarrabiako Paz de Zigandak. *Munduz mundu* lelopean, aurtengo Nafarroa Oinez festako dirua horretara bideratuko da, baina jasotakoaren %20a Lodosako ikastolari emango diote, bizi duten egoera larriarekin elkartasunean.



Irudietan, Paz de Zigandako haurrak jolasean. Neurozientzietan doktore den Maria Lópezen esanetan, batzuetan gurasoek edo irakasleek susmoa dute umeak ez duela ondo ikusten, oftalmologora eraman eta honek esaten die ez duela ezer. “Ez du ezer begietan, baina horrek ez du esan nahi burmuinak ondo egiten duenik bere lana, irudiak ondo antzemango ditu begiak, baina arreta bisuala, espazioa antzemateko modua, memoria bisuala... gaizki egon daitezke”.

duen ikaslearen problema ez ote den azukre, txokolate, Coca-cola... gehiegi hartzen duela, hitz egiteko zailtasunaren errua arnas koordinazioak al duen...

Behin arazo fisiologikorik ez dagoela baieztatuz gero, arlo sensoriala aztertzen du neurozientzietan doktoreak; hots, ea umea munduarekin ondo konektatuta dagoen ikusmen, entzumen eta ukimen eremuetan. Ikusmenean arazoren bat badu, ez du gustura margotuko; ez badu entzuten, deskonektatuta egongo da eta ez ditu irakaslearen arauak ulertuko; eta ukimen arazoak baditu, minarekiko hiposentikorra bada adibidez, kolpeak hartuko ditu konturatu ere egin gabe, traketsa izango da, dena ukitu nahiko du eta margotzeko edo idatzeko arazoak izango ditu. Aurrerago ikusiko dugunez, kontua ez da ea ondo ikusten, entzuten, ukitzen duen, baizik ikusten, entzuten eta ukitzen duen hori garunak ondo prozesatzen eta barneratzen al duen.

Azken urratsa fisikoa litzateke; umearen psikomotrizitatea aztertzea. Baliabide egokiak ditu koordinaziorako, orekarako, gorputzaren jarrerarako, gorputza espazioan kokatzeko, begia eta eskua koordinatzeko?...

Lópezen hitzetan, garrantzitsua da ziurtatzea burmuinean sartzen den informazioak

Umeak marrazteko burua mahai gainean etzaten badu, ikus-eremu bat ezabatzen egon daiteke, ez dituelako ezker eta eskuin begiak ondo koordinatzen

ahalik eta kalitate onena duela, adin horretan garatzen ari direlako umearen sistema sensorial guztiak: “Ni ez nago garapen intelektualarekin kezkatuta, garapen hori eman dadin aurreko guztia begiratzen dut, oinarriak. Burmuina ondo antolatua baldin badago, erraza izango da garapen intelektuala, ikasketa prozesua, eta ez baldin badago, zaila”.

Garuneko “oztopoak” nola antzeman?

Ebaluazio neurofuntzionalak egiten ditu Maria Lópezek, umeak bere adinari dagokion burmuin-garapena duen jakiteko. Adibidez, ume batek marrazteko burua mahai gainean etzaten badu, ikus-eremu bat ezabatzen egon daiteke, irudiak mugimenduan ikusten dituelako, ez dituelako ezker eta eskuin begiak (bi ikus-eremuak) ondo koordinatzen: “Ibili bitartean hanka batek besteari ostikoak emango balio bezala da, begi batek besteari ostikoak ematen dizkio, edo begi bat alde batera doa eta bestea bestera, edo saltoka, edo bat bestea baino azkarrago...”. Ikusmenarekin eta motrizitatearekin lotuta, haurrak mugimendu begi-motore heldugabeak izan ditzake eta mugimendu horiek landu egin beharko ditu, gauzen segimendua begiekin egin dezan, eta ez gorputz osoarekin edo

lepoarekin, bestela gero gorputz osoa mugituz irakurtzen bukatuko duelako.

Entzumena berriz, irratia bailitzan muntatzen da garunean, eta umeak ikasi behar duen lehen gauza da entzumena pizten eta itzaltzen. Haur batzuek piztu eta itzaltzen dute oso ondo jakin gabe noiz, gelan deskonektatuta daukate botoia eta ez diote irakasleari entzuten. Beste hainbatek soinu iturria aurkitzeko arazoak ditu, 360 graduako eremuan bilatu behar dugulako iturria, baina ikusmenak 120 gradu hartzen ditu. Esaterako, irakaslea atzean baldin badaukagu eta bere ahotsa ezkerretik edo eskuinetik datorren identifikatzeko zailtasunak baditugu, denbora gehiago galtzen da hori zehazten eta informazioa galtzen da. Bolumena kontrolatzea ere garrantzitsua da: hiposentikorrek normala baino altuago hitz egitea behar dute, eta hipersentikorrek aldiz –zarata dagoen lekutik berehala negarrez hasten diren horiek–, baxuago. Soinuak filtratzeko arazoak izanez gero, ez dira gai izango interesatzen ez zaizkien hotsak kanpoan uzteko eta irakaslearen ahotsean zentratzeko: “Gelan dauden entzumen eta ikusmen estimulu guztietatik irakaslearekin, arbelarekin geratu behar da umea, baina ez baldin badaki garrantzitsua dena eta ez dena banantzen, dena sartuko zaio buruan, hots pila, eta kaosa da hori, informazio ez-antolatu asko. Horrek eragingo du gehiago ezin duenean haurrak zuzenean bere buruko ‘irratia’ itzaltzea, edota jasotako informazioa ere halaxe ateratzea: asko eta antolatu gabe. Nire lana da ziurtatzea informazio sarrera modu antolatuenan emango dela”.

Maria Lópezek argi utzi nahi izan digu berak ez duela begiekin edo belarriekin lan egiten, baizik eta begiek eta belarriek garunera bidaltzen dutenarekin. “Batuetan gurasoek edo irakasleek susmoa dute umeak ez

duela ondo ikusten, oftalmologora eramanez eta honek esaten die ez duela ezer. Ez du ezer begietan, baina horrek ez du esan nahi burmuinak ondo egiten duenik bere lana, irudiak ondo antzemango ditu begiak, baina arreta bisuala, espazioa antzemateko modua, memoria bisuala, ikusi eta entzutearen arteko lotura... gaizki egon daitezke. Informazioaren prozesamenduan egon daiteke arazoa eta burmuinak entrenatu egin behar du hori”. Baina nola?

Soinuak filtratzeko arazoak izanez gero, ikasleak ez dira gai izango interesatzen ez zaizkien hotsak kanpoan uzteko eta irakaslearen ahotsean zentratzeko

Arazoa antzeman ondoren, zer egin?

Estimulazio programa bat prestatzen da, bi norabidetan: batetik, ikastolan taldean lantzeko ariketak (psikomotrizitatea, esaterako), eta bestetik, etxean haur bakoitzak lantzekoak (adibidez ikusmen estimulazio zehatzak). Bigarren horiek zehazteko, ikusitako haur bakoitzaren gurasoekin biltzen da López. Gainera, ikasturtero hitzaldi bana eskaintzen du Paz de Zigandan: bata gurasoentzat, eta irakasleentzat bestea.

Hain zuzen, irakasleek prestakuntza jaso dute arlo honetan eta ikastolan egiteko diren ariketetan ikasle guztiek hartzen dute parte Haur Hezkuntzan, egunero. Hala, ez da arraroa Paz de Zigandan haurrak lau hankan ibiltzen aurkitzea, ikusmena estimulatzen. Modu horretan, lurrarekiko distantzia konbergentzia bisual ona al duten frogatu dezakete, eta konbergentzia hori landu, ondoren irakurtzeko haurrak beharko duen distantzia bisualean eroso egon dadin. Entzumenari lotuta, programa berezia dute: makina batekin, hamar saiotan bolumen desberdinetan frekuentzia ugari filtratzen dizkiete umeek, aztertzeke ez zenbat entzuten duten, nola entzuten duten baino. Aparailuari esker, entzumena entrenatzen edo estimulatu du ikasleak. “Irakasleen txipa aldatzea garrantzitsua izan da; berez, 4-5 urteko ume batek



Atxaspi Hotela

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com



Maria Lópezek (irudian) 4 urterekin ikusten ditu garapenean zailtasunen bat duten haurrak eta jarraipena egiten die. Arazoaren araberako ariketak jartzen dizkie, irakasleekin eta gurasoeekin hitz eginda.

ikasi egin nahi du, mundua ezagutu, estimulatuta dago eta zaila da adin horretan alferria izatea. Beraz, ez badu egiten, izango da arazo bat duelako, ez dagoelako eroso ikasten”, azaldu du Gemi Sorabilla ikastolako orientatzaileak.

Duela hamar urte abiatu zuten egitasmoa, eta inbertsio eta apustu handia egin dute horren alde. “Laguntza taldeak beti izan ditugu, baina adibidez ikasleak gaizki irakurtzen bazuen, irakurtzeko gehiago ematen genion, eta arazoaren oinarriara joateko asmoz hasi ginen estimulazio programa lantzen. Izan ere, normalean informazio irteeretan jarri ohi da laguntza, ikasle batek ikasketetan arazoak dituenean irteeran ikusten direlako: gaizki ira-

kurtzen edo hitz egiten du, zailtasunak ditu idazteko... baina benetan arazoa informazio sarreran dago, nola entzuten, ikusten duen ikasleak, nola mugitzen den”, azpimarratu du Sorabillak. 1.000 ikasletik gora ditu Paz de Zigandak, 150 inguru 4 eta 5 urtekoak, eta horietatik urtean 15 bat ume ikusi ohi ditu Maria Lópezek –baita ikastetxetik kanpokorren baten batzuk, gurasoek hala eskatuta–. Ekimen honekin, emaitza oso onak lortu dituzte: madrildarrak hartzen dituen ume gehienek burmuin-garapen tasa %70-80koa da –%100 litzateke aproposa–, eta tratamenduaren ostean batez beste %95-97koa da. Garapen arazo larriagoak dituenik bada, noski, eta horiekin Lehen Hezkuntzan ere jarraitzen da lanean, intelektualki baino, garuna estimulatzen.

Prebentzioaren garrantzia

Burmuina ondo garatzeko oinarriak finkatuz gero, izugarritzko lana egin daukagu, eta 0-6 urteetan egitea funtsezkoa da, malgutasun handiena orduan duelako gure garunak. Helduagoak direnean ere zuzendu daitezke aipatu zailtasunak, baina askoz ere konplexuagoa da, ez delako gauza bera garuna hartzea bere garapenaren une onenean dagoenean, edo gauzak jada antolatuta eta “erabakita” daudenean. Lópezek dioskunez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza titulua lortu ez duten gazte gehien-gehienek ez dute lortu ez bat-batean tonto edo errebelde bilakatu direlako, baizik lehenengo zenbaki edo hizkiari aurre egin behar izan ziotenetik zailtasunak izan dituztelako. “Ondo irakurtzen inoiz ikasi ez zuten haurrak dira, haurtzaroan asko sufritu zutenak, eta geroz eta handiagoa egiten da pilota”. Eta hezkuntzatik at, bestelako arazoen oinarria ere hor egon daiteke. Arreta defizitarenatik hiperaktibitate kasu asko haurtzaroko garapenari lotuta daudela uste du doktoreak. Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da prebentzioa. ■



euskarak batzen gaitu

www.aralar.net

Asteburua opari!

Harpidedun,
Harpide berri bat ekartzen baduzu,
ondorengo nekazal etxe edo hotel
batean bi lagunentzako asteburua
oparituko dizugu:

- Atxurra Hotela **BERMEO**
- Zumalabe Hotela **MUTRIKU**
- Gametxo Hotela **IBARRANGELU**
- Oxangoiti Hotela Jauregia **LEKEITIO**
- Ellauri Hotela **ZEANURI**
- Guikuri Nekazal Turismoa **MURUA**
- Atxaspi Hotela **LESAKA**
- Saiaz Hotela **GETARIA**



Eta **harpide berriarentzat** ere
ARGIAko 2Gb-ko MP3 irakurgailu/pendrive
esklusiboa
opari!



943 371 545



gunea@argia.com



www.argia.com/argialagunentzat.php

Plazerez hordi

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Urkiza



Padrón

Ikusia nuen etekin onak ematen zituela. Han hemengo zutabegile askok erabilitako metodo hutsezina zirudien. Zer idatzi ez zekitela zebiltzala, kalera irten eta beti egiten zuten topo artista jendearekin; Euskadiko Orkestrako zuzendaria, aktorea arrakastatsu bat, rock talde bateko kantaria, pintore bat... Bestela, beste zenbait jende ere bai, inportanteak oro: kultur kontseilari ohi bat, telebistako aurkezlea, euskaltzain bat, Athleticeko jokalaria bat... Eta hala, hauetakoren batek esaten zizkionarekin, zutabegileak bere testutxo osatzen zuen. Ez nenbilen oso inspiratuta azken aldian, ez zitzaidan samurra egiten zutabearen peskiza, eta nik ere metodoa saiatzeari pentsatu nuen. Lehenengo egunak pasa eta deus ez, pare bat aste, berdin; hilaren amaiera iristen ari zelarik, ez nuen zutabea salba zezakeen inorekin topo egin kalean. Halakoxe tristetia da nire bizitza. Baina nolakoak diren gauzak, berriz ere zutabea idatzi eta erredakziora bidaltzeko muga nengoela, txapelketetan parte hartzeari uko egin dion bigarren mailako bertsolari batekin topo egin nuen pelukerian. Ez da gauza asko, baina tira, ezer baino hobe. Jarraitzen zituen gure ttakunak eta ez nion haria esplikatzen behar izan. “Ez diat esango zer idatzi behar duan” esan zidan mozketaren ondoren buru gaineko soila sobera nabarmentzen ote zitzaion begiratzen zuen bitartean, “baina pentsazak hitz batean, *Biopower*, Bioboterea euskara jatorrean. Foucaultena duk”. Alajaina, Foucault.

Boterea ez dela gauza itxi eta estatikoa erakutsi zuen Michel Foucaultek; botere guneak bainoago, botere harremanak daudela. Bere ibilbide intelektualaren amaieran bioboterea kontzeptua garatu zuen esplikatzeko nola jendarte garaiki-

deetan boterea giza bizitzaren erraieraraino sartzen den. Botereak kontrolpean edukitzen dituela gure ohitura, ekintza, desio, sentimendu eta enparauak. Jose Luisen aipatzen zuen nola, ETaren su-etenaren eta ondorengo adierazpenen harira, boterea ahalegintzen ari den gu pozik egon ez gaitzen. Gure zoriona kontrolatzen.

Kontu zaharra da triste egon beharraren hau. Katolizismoaren historian errepikaria izan da mundua, ezinbestean, sufrikario bat delakoa, hil ondorengo bizitzan etorriko dela festarako tenorea. Malkoen bailara eta hori guztia. Aitzitik, boterearen amarruak, gu guztiok kontrolpean izateko, askotarikoak dira, eta kapitalismo berantiarrean justu kontrakoaren bidez dominatzen da eskuarki jendea. Etengabeko plazaren beharizanaren bidez. Jada ez gaude triste egotera kondenatuak, baizik eta kontent egotera. Eta egiazki, ez dakit zer den okerragoa. Izan ere, zenbat neke pozik egoteko! Bikotekidea (ederra, karrera eta masterduna...), familia erdugarri bat (pare bat seme-alaba, Gabonetako bazkari-afariak), lagunekin planak (afariak, parrandak, biharamunak...) lankideekin planak (footing pixka bat, futbito partida...), arteaz eta kulturaz “jantzi” (ezdakitzeko-aldia, museoak, fundazioak...), norbere buruarekin ere ondo egon behar (yoga, pilates, talasoterapia...), bidaiak (Egipto, Kuba, India...) eta abar. Gauzak honela, ez da harritzekoa gureak *spleen* garaia izatea; plazerez hordi, azkenerako gogaituta amaitzen dugula. Zenbat bider entzungo ote genuen: “Egun guztia sofán botata aspertuta pasatzeko irrikan nago!”. Ez alferrik, hain justu Baudelaire-ri, adiskide batek galdetu omen zion behin batean, “zoriontsu al zara?”. Poetaren erantzuna, sinbolismo handirik gabekoa izan zen: “Ez nago hain akabatuta”. ■



Gauzak honela, ez da harritzekoa gureak *spleen* garaia izatea; plazerez hordi, azkenerako gogaituta amaitzen dugula. Zenbat bider entzungo ote genuen: ‘Egun guztia sofán botata aspertuta pasatzeko irrikan nago!’



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Xabier Etxaniz Erle

IDAZLEA

Hezitzailea

Aurreko egunean lagun batek mezu bat bidali zidan posta elektronikoz. Ohiko triste, broma edo bitxikeria izango zela uste nuen baina izenburuak nire arreta erakarri zuen hasieratik: irakasleak eta hezitzaileak zioen.

Termino biak sinonimoak izango zirela uste nuen baina oker nengoen. Ez dut ezer berririk esango komentatzean irakaslearen figurak garrantzia galdu duela gure gizartean. Duela hamarkada gutxi batzuk irakaslea zen zientzia eta ezagutza zabaltzen zuena, berari esker—edo bere lanari esker—prestatzen zen haurra eta gaztea munduari aurre egiteko. Irakurtzen, idazten, munduko beste errealitateen berri ezagutzen zen eskoletan. Eta irakasleak, maisuak, maistrak, bazuen pisua, garrantzia, prestigioa herrian.

Gure artean orain ez da horrelakorik ikusten eta horren adibidea da irakasle-ikasle kexen inguruan dagoen anekdota ezaguna. Duela urte batzuk ikasle batek zerbait gaizki egin zuenean irakaslea kexatu eta gurasoek neurriak hartzen zituzten haurrarekin; orain, gurasoek neurriak irakaslearekin hartzen dituzte.

Gure gizartean ardura eta betebeharrak ugari utzi ditugu irakasleen esku. “Ez, ez, nik ez diot berdurarik emango etxean, eskolan ikas dezala



ALEX LARRETXI

ongi jaten. Nirekin bi egunetan bakarrik dago eta bi jatordurengatik ez naiz hasiko eztabaidatzen” (guraso bati entzuna) edo, “hiru urteko haur bati behin esan nion hori ez egiteko. Haurra harrituta begiratu zidan; uste dut EZ hitza entzuten zuen lehen aldia zela” (irakasle batek kontatua). Etxean egin beharrekoak, telebistak erakutsi behar

duena, gizarte ardurak... guztiak geratzen ari dira eskolaren esku (sexu informazioa, errepideetatik nola ibili, bakearen aldeko jarrera, elkarrekiko errespetua...) eta nik buruan ditut nire aiton-amonak, eskolara joan gabeak, haiek heziak izan ziren, giza-formazio sendoa zuten. Nola lortu ote zuten? Zer egingo zuten haiek gure artean?

Familiak gehiago egin behar du haurrak hezteko orduan, botere publikoak ere bai, bai eta komunikabideek. Eta irakasleen formazioan aritzen garenok ere badugu

gure ardura, izan ere, jasotako posta elektronikokomentatzen zen bezala, Andaluziako institutu batean irakasleak sarritan esan arren ikasleei ez pintatzeko ispilua emaniko musuen bidez garbitzaileak etorri behar izan zuen eta erakutsi ikasleei berari zenbat kostatzen zitzaion ispilua garbitzea... komuneko ura erabiliz. Hura bai hezitzaile ona! Behin erakutsita ikasi zuten ikasleek... lortuko al dugu hori gure irakasleekin! ■

«
Nire aiton-amonak, eskolara joan
gabeak, haiek heziak izan ziren,
giza-formazio sendoa zuten.
Nola lortu ote zuten?
»

TXANDAN

Amatiño



Balio erantsi bila, alegia. Krisialdia dela-eta, enpresa pribatuaren mozkin-murrizketaz hitz egin ohi da erruz, baina ez garai onei zerizkien dirulaguntzei esker jardun izan duten kultura-ekintzen egoera larriaz. Laguntza publikoen murrizketa publikoa da; enpresen esponsorizazio-mozketa, aldiz, pribatua. Makina bat kultura-ekimen mortalak jasaten ari da, isil-isilik.

Baina kultura-mundua oraindik jabetu ez den arren, egoera ekonomikoa lehenera itzuliko balitz ere, orain arteko patrozinio-moldeak nekez jarraitu-

Balio

ko luke lehengo lepotik. Bere arlo zuzenaz baino arduratzen ez zen enpresa itxia eta urruna amaitzeaz dago. Baita nolabaiteko gizarte-erantzukizuna erakusteko inoren ekimenez jantzi behar zuen lantegi-mota ere. Etorkizuneko enpresa berez arduratuko da giza-lorpenez, baloreez, ingurumenaz zein iraunkortasunaz.

Orain arte kultura-mundua esaten zion enpresari: “Zu zikina eta iluna zara, nire ekimenetan partaide izanik nik garbitu eta argituko zaitut”. Baina aurrerantzean enpresak erantzungo dio kultura-munduari: “Ni zu gabe naiz ura, zein da zure balio erantsia ni hobea izan nadin?”. ■

Felipe Zubia Olaskoaga

MEDIKUA

Zein da onartu litekeen egia?



sasun munduan lan egiten dugu-nontzat, gaixoari informazioa ematea da dagoen gauzarik zailenetako bat, berri txarrak eman behar direnean bereziki. Zenbat eta zein informazio eman behar den neurtu beharra daukagu, eta nola ematen den bereziki, gaixoaren jarrera egokia bilatzeko.

Sarritan aipatzen den gaia da, baina neurtzen zaila. Gaixoaren izaeraren arabera, batentzat lagungarri dena bestearentzat etsigarri izan litekeelako. Liburuek eta adituek diotenez, gaixoak onar lezakeen informazioa eman behar zaio, epeka, kaltegarri ez bihurtzeko. Neurria hartzeak ematen dizkigu lanak, hori jakitea oso zaila baita.

Aldaketa handiak eman dira azken urteotan alor honetan. Duela gutxi arte, jarrera erabat paternalista jarraituz, medikua zen informazioaren jabe bakarra, eta berak hartzen zituen erabaki guztiak, gaixoa eta bere ingurukoak kontuan hartu gabe. Pixkanaka, gaixoak geroz eta protagonismo handiago hartu du, azken finean bera baita bere gorputza, osasuna eta bizitza delako. Osasun langileon lana gaixoari laguntzea



DANI BLANCO



Zilegi al da gaixoari informazioa ezkutatzea?

Zer zenuke nahiago irakurle, egia osoaren

jakitun izan, ala ezjakinean egon,

gaitzak aurrera egiten

duen bitartean



da, informazioa ematea, aukera ezberdinak azaltzea, eta hautatzen laguntzea. Ondo informaturiko gaixoak jarrera positiboa hartuko du, tratamenduan lagunduko digu, eta sendaketara iristea lortuko digu.

Baina zer egin gaixotasuna sendaezina denean? Gaixoari esan ala ez esan? Noiz? Nola? Medikua onartu, bere ingurukoekin batera, gaixoaren nortasuna aztertzea da,

bere jarrera eta usteak, eta horren arabera, informazioa ematen joan. Zilegi al da gaixoari informazioa ezkutatzea? Zer zenuke nahiago irakurle, egia osoaren jakitun izan, ala ezjakinean egon, gaitzak aurrera egiten duen bitartean.

Azken finean, heriotzari baino gehiago, bakardadeari, sufrimenduari eta minari dio beldurra gizakiak. Zorionez, medikuok ere ikasi dugu sendaezin den gaixoari laguntzen, beti asmatzen ez badugu ere. Berarekin izango gaituela jakin behar du gaixoak, bere minak eta estutasunak arinduko dizkion botikak baditugula, eta azkena iritsita, ez dugula alferrikako kalbarioa luzatuko. Gure betebeharrak sendatzen saiatzea delako, eta sendatu ezin denean, arintzen laguntzea, beti gaixoaren alboan. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ez gaituzte bakean uzten. Muga polizien barrutia da. Alde batera zein bestera, uniforme ezberdinekoek inguratzen gaituzte gu mugatuz. Goizeko hamaikak. Eguneroko kafeak hartuz egunkariak irakurri, eta ohiko ibilaldia burutu ondoren, Berria besapean kotxera egin dut etxeratze asmoz. Ez ditut hirurehun metro egin eta CRSak gelditu eta baztertzeke keinua egin didate. Motorra itzaltzeko agindua. Paperak. Guztiak atera dizkiet. Furgonara joan dira eta bost bat minutu luzez eduki naute zain. Bat inguratu zait eta furgonera joateko agindu dit. Jarri eta galdetzen hasi zaizkit zeuden

Beren bakeek

hiruak. Zertan nenbilen galdezka. Justiziarekin zorrak banituela esan dit batek. Nik ezetz. Galderak zehazten hasi zaizkit.

Nik, ez niela erantzungo. Furgonaren aurrealdetik gaztelaraz itaundu didate. Bi gazte kaleko jantziez. Gaztelako azentuez haserre plantak egiten hasi zaizkit. Ez niela erantzuteko motiborik. Lagun bat ikusi dut berinatik, hogeit bat metrora kotxea aparkatzen. Konturatu dira. PAFera eramango nindutela pentsatu dut. Berrogei minutuko egonaldiaren ostean paperak itzuli eta joan nintekeela esan dit uniformedunetako batek. Hamar bat kilometrokoa kostatu zait zangoen ikara, bihotz taupadak eta tentsioa bere onera ekartzen. ■

BERTSO BERRIAK

Jexux Mari Irazu

Pilarika bezperatan jarriak

INIGO AZKONA



I

Pilarika bezperatan
hegohaizearen datan
hona zenbait bertso bakan.
Udazken edo urriaroan,
udaberriko aldapan,
bakoitza erritmo banatan
ta besteok datu faltan
lerro artetik zelatan.

II

Indar bateratze, polo
duo, trio eta solo
su berri baten pospolo.
Ideak forma hartzen ari du
formak bidea... auskalo!
Beldur eta errezelo
Euskal Estatua lelo
beste biak ez daude lo.

III

Mende erdira iritsi
asmo bat ta bi iritzi
zer zabaltzeko zer itxi?
Zertan ez kendu kaputxak eta
begi barrenak igurtzi
aurpegia libre utzi
lehen emana, ez gutxi
orain eman ta erakutsi.

IV

Jauzi egin behar aroz
batzuek aldarte harroz
aitaren etxeko harotz.
Inoiz aulkirik bada arriskuan
proklama politak, ahoz
salbu hiruzpalau ahots
lege zahar eta larros
azkenean beti Ados.


V

Kontrasteen estandarte
esperimentu uharte
Nafarroa baluarte.
Ez dirudite ez herri ta ez
Erresuma baten parte.
Holak portadan lekarke
“prensarosa”ko pasarte
nor norekin, non, noiz arte.

VI

Haizeak ufa ozena
behetik gora zatozena
zurrumbilorik latzena.
Pilarikari gurean zainak
eten dakizkiokena
nere bertsoen gai zena
nere nahia, nere sena,
esatea errexena.

DOINUA: “Ikusten duzu goizean”.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

EHAZE

Antzerki zaleak mugimenduan

Ekainean eman zen ezagutzera Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte. Kultura krisiek zipriztindurik ageri zaigun garaiotan euskal antzerkiaren ondoeza aspalditik datorrela ekarri digu gogora EHAZEK, bere sorrerarekin. Oraingoz indarrak batzen dabil, pausoei tamaina hartzen, zaleei ezagutzera ematen, funtsean hori baita elkartearen xedea: zalea den orori ahotsa eta lanerako tresnak ematea.

OIER GUILLAN

Argazkiak: EHAZE

ELKARTEA SORTU eta Josu Camara lehendakari izendatu zutenetik ugariak izan dira erantzun beharreko galderak, bai komunikabideetan eta bai kalean ere. Camarak dioenez lehen hilabete hauetan sumatu du nola edo halako interesa. “Jendeak jakin nahi du euskaraz egiten den antzerkiaren egoera zein den. Orain arte nahiko ikusezina izan da, kultur arlo gisa agian pixka bat ahaztuta egon da. Beste kontu bat da gero jende horrek guztiak nola erantzuten duen euskal antzerkiaren agerpenak daudenean”.

Idoia Gereñu koordinazio lanetan dabil eta bere ustez sakoneko lana egiteke dago oraindik. “Joan den kurtsoko helburua bete genuen, elkarte publiko egitea eta martxan jartzea. Aurtengoa ume jaio berri baten lehenengo urtearekin pareka dezakegu, orain hazi egin behar du lehenengo pausoak ematera iritsi arte”. Teatroan bezala mugimendua ez da hutsetik sortzen, inprobisazioa beti egiten da zer edo zeren gainean, gorputzak euskal teatroak bizi duen egoeraren gainean gogoe-ta egitea eskatu dio EHAZERi.

Nola dago euskal teatroa?

EHAZERen hazia orain hiru urte erein zen, Hik Hasi topa-

keten testuinguruan teatroaren hainbat arlo-tako jendea bildu zenean. Camarak dioenez talde anitza zen hura: irakaskuntzako jendea, aktore profesionalak, amateurrak... “Bilera horretan denak zeuden kezkatuta, ezkor, arazoak ikusten zituztelako euskal antzerkian”. Problema larrienen artean zegoen, hain zuzen ere, guztien sakabanaketa. “Bakoitza bere mikro-unibertsotik saiatzzen zen berea konpontzen, arazo orokorrari erantzun baturaturik eman gabe”. Bilera haren ostean pausoak ematen hasi ziren, kontaktuak eta sareak



gauzatzen, aurtengo ekainera iritsi arte. Hasieratik argi izan dute zalearen inguruan egituratutako proiektua izan behar dela, Camararen esanetan euskal antzerkiaren alde zerbait egiteko gaitasuna edo gogoia daukan norberak neurtu beharrekoa da. “Zaleen elkarteia izanda azpimarratu nahi da ez duela profesionalen elkarteia izateko bokaziorik. Maila profesionalean normalean egiten diren harremanak nahiko komertzialak izaten direnez, ikusletik urrun egoten gara”. Elkartetik dinamika hori hautsi nahi dute: “Hemen daukagun programazio eskeman ikuslea agente pasiboa da, kontsumitzaile hutsa. EHAZERen bidez lortu nahiko genukeena da agente aktiboa izatea, berak ere gaitasuna izan dezala eskatzeko zer nahi duen”.

Zalearen kontzeptua gogoan hartuta saihestezina dirudi bertsogintzaren arrakastak izandako eragina aipatzea. Camararen esanetan hasieran oso presente zegoen, baina azkenaldian gutxiago. “Bertsolaritza oso bertokoa da, indar handiarekin piztu den kultur arloa. Haren inguruan zenbat jende, zenbat zale mugitzen den ikusteak bilakatzen du erreferentzia. Harreman oso ona dugu Bertsozale Elkartearekin, ziur aski badira haien esperientziatik har daitezkeen ideiak, baina guk ikusten dugu beste arazo bati aurre egiteko sortu garela: momentu honetan, adibidez, ez dago erdarazko bertsolaritzarik”.

Euskal Herrian inoiz baino kultur azpiegitura gehiago dagoen arren euskaraz hustuak daude neurri handi batean. Camarak dioenez aspalditik datorren kontua da: “Sentitzen dugun arazoa da, antzerkia, izatez, nahiko erdalduna dela. Iparraldean bizirik irauten duten fenomenoak kenduta, 1960ko hamarkadatik helduentzat sortu diren manifestazio gehienak erdaraz sortu dira. Gerora programazioak finkatu direnean, Iparraldean zein Hegoaldean, kanpotik zetozen ikuskizunekin eta bereziki gaztelaniaz edo frantsesez egindakoekin osatu dira. Euskarazko antzerkia programazioaren %18 omen da. Horren barruan umeentzako antzerkia dago, euskaraz egiten den guztiaren %80. Eta 80 hori ez doa gorantz; sortzen ari dira kasuak, umeentzat ere gaztelaniaz programatzea eskatzen dutenak”.

Euskal antzerkigintzaren diagnostika egitea da EHAZERen lehen asmoetako bat. “Datuak biltzen ari gara euskal antzerkia nola dagoen aztertzeko. Zenbat talde dauden euskaraz lanean, zenbat antzezlan dauden eskaintzeko moduan, zeintzuk diren amateu-

rrak, profesionalak; zein helduentzat, zein haurrentzat... Zenbaitetan entzun izan dugu programatzeko borondatea badagoela baina ez programazio bat mantentzeko lan nahikorik. Ezjakintasuna da hori? Edo alferkeria, ez dutelako ahalegin handirik egin bilatzeko? Izan ere, lanak egon, badaude”.

Testugintza garatuz

Zaletasuna zabaltzeko xedearekin batera EHAZEK badu teatrogintzan dabilen jendeak sentitu izan dituen hutsuneak osatzeko proiektu ugari ere. Sortu diren lan taldeen artean dago dokumentazioaz arduratzen dena, euskarazko antzerkigintzak sortzen duen ondarea gizarteratzea baita helburu



inportanteenetariko bat. Lan talde horretan dabil Pablo Barrio. “Arnas luzeko ekimena da, beste motako agenteekin elkarlanean egin beharrekoa, halako Dokumentazio Zentro batean gauzatu beharko litzatekeena”.

Ugariak dira xede horrekin aurreikusi diren lan esparruak: euskarazko antzerkiaren historia eta hari buruzko ikerketak jaso; dagoeneko sortuak diren testuak bildu eta testu berrien sorkuntza bultzatu; saiakerak eta ikerketa teorikoak, material pedagogikoak, gida praktikokoak eta abar jaso; arlo teknikoari edo taularatzeari loturiko lanak –dramaturgia, eszenografia...– lortu; ikus-entzunezko artxi-boak bildu. Barriok azaldu duenez, haien artean premiazkoena testu falta asetzea da: “Taldea batek zerbait prestatu nahi badu lehenengo kezka testua da. Apenas argitaratzen da ezer, gero eta gutxiago esango nuke, gainera. Bestalde, bada testu asko hor nonbait: idatzi,

Teatroa mugimendua da...

...eta horregatik saiatu da etengabeko mugimenduan egoten EHAZE. Ekaineko sorrera datari lotu zitzaion Bilboko Kafe Antzokian egindako jaialdia eta uztailan Hik Hasiren testuinguruan egindako Esperientzixak ekimena, zeinean antzerki piezak ikusteaz gain Antton Luku, Jose Angel Irigaray, Joserra Fachado eta Eugenio Arozenaren bizipenak entzun ahal izan ziren Ander Lipusek gidaturik. Irailan EHAZEK esperimentazioa eta ikuskizunak uztartzen dituen Usurbilgo Topa Eszenikan parte hartu du. Azaroaren 27an Azpeitian egingo den Antzerkizale eguna prestatzen dabilta egun buru belarri. Bertara jai giroan gonbidatuko dituzte

zaleak, goizean herriko kaleak hartuko dituzte antzezlanetako pertsonaiekin, elkarrekin bazkaldu ostean Antzerkizale Saria banatuko dute. Idioia Gereñuk ekimen eta proiektu guztien oinarrian dagoena ekarri du gogora: “Teorizatu eta gogoetak egiteko une eta txokoak lanean ari diren bitartean antzerkiaren distira ikusle, ikasle, entzule nahiz egile direnekin batera elkarbanatu nahi da. Antzerkia herritarren artera gure hizkuntzaren bidez zabaldu eta honek dakartzan sentipen, ikaspen, emozio nahiz jarrerak jendarteak ezagutu ditzan bultzatu nahi du. Eta horretarako, bizirik gaudela agerian jarriko duten ekimen hauek behar ditugu”.

lehiaketa batera aurkeztu eta tiraderan gordeta geratzen direnak, edota talderen batek antzeztu eta gero ahanzturan galtzen direnak, adibidez. Horiek bildu, orraztu, sailkatu eta guztion esku jartzea da geure buruari ezarri diogun lehenengo lana”. Webgunea jarriko dute martxan testuekin, haien ezaugarriak laburtuko dituen fitxa banarekin. “Auzo-lanean egin beharreko lana da, neurri handi batean”.

Testugintzaren inguruan sortzen diren sentipenak egoera orokorraren adierazgarri ere izan litezke. Barriok luze gogoetatu du gaia: “Arazo asko ditu euskarazko antzerkigintzak eta horien artean testuena ez da txikienetakoa. Egia da testua prozesu bateko osagarri baino ez dela, askotan ez inportanteena gainera, eta, zentzu horretan, ez da gehiegi dramatizatu behar; baina aldi berean egia da testugintzarik gabe ez dagoela euskarazko antzerkigintza osasuntsua lortzerik”. Teatro testuen arazoa literaturaren edo are kulturaren testuinguruan uler liteke. “Esan

**“Euskarazko antzerkia
programazioaren %18 omen
da eta horren barruan
umeentzat egiten dena
%80 da”**

JOSU CAMARA, EHAZE

izan da antzerkia, literatur genero moduan, desagertzeko bidean dagoela. Gure kasuan, norberaren gustua ez bada arrazoi gutxi dago antzerki testurik sortzeko, eta arrazoi ekonomikorik bat ere ez. Gauzak horrela, kalitatezko zerbait sortuko da noiz edo noiz, baina antzerkigintza sana nahi badugu, kalitatea kuantitatetik sortu beharko da. Ez du ematen, ordea, arazo hori inori inporta zaionik, ezta antzerki munduko jendeare ere, zoritxarrez”.

Barrioren ustez EHAZE teatroaren arlo ezberdinetan lanean dabilen jendearentzat elkargune izan daitekeen heinean, testugileen eta taldeen arteko elkar ezagutza bidera lezake. “Antzerkizale Elkartearen benetako erronka eta ekarpena da antzerkiaren inguruan mugitzen diren sektore guztiak biltzea. Benetan asmatzen badugu EHAZEri bizia ematen elkarkea bera bilgune bilakatuko da, modu naturalean, elkarren arteko ezagutzak irekiko ditu ateak, urrun zeudenak hurbilduko ditu”. ■



EIBAR

Urriaren 15etik 24ra, Unzaga plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi
irakurriz!*

Liburuak

KRITIKA

Katu jendea.
Eider Rodriguez.
Elkar.
155 orrialde. 12 euro.

Helduen literatura
Gema Lasarte



Aita labetik irten berria

EIDER RODRIGUEZEK esaldi hori *Kapitalismoa* izenburuko ipuinean paratu du. Eta esaldi horrekin laburbilduko genuke Rodriguezek boterearekiko, azpijokoekiko nahiz protokoloarekiko duen joera semantikoa edota ikuskera zorrotza.

Heriotza eta herentzien inguruko narrazioaren gogoetan ezik, adinduak paratu ditu protagonista gisa Rodriguezek ipuin bilduma honetan, izan ere, kontakizunotan zehar bazter hauetako jendilaje dezente gorpuztu baitu. Zaharrak motrizitate baldartuaz begitanduta, bakardadea eta harremanen ukazioaren lekukotasuna emanaz. Horrela *Katu Jendea* ipuina, lehena, bi protagonisten arteko maitasun ezinaren eta euren katu maskoten arteko ibilbide paraleloaz eraikia da. Katamaren heriotzarekin bukatzeko, katu hilak utzitako kiratsa, hiltzen uzten den desioaren usaina delako. Bi protagonisten arteko hurbilpen nahi eta ezinaren heriotza, zer esanak emana.

Bada gizon bat horien guztien artean Telmo izenekoa, banandua, aita labetik atera berri zuela herentziari esker Volvo ikusgarria erosi zuena. Burgesa bera, bere lanbidean nonbait, putanerrak ugariak baina higieagatik maite ez dituen. Inorekin larrua jotzea baino masturbatzea maiteago duena. Higie kontuak.

Bada ama bat behi sentitzen dena, besteen behar fisiologiko oinarritzkoak asetzeko baino balio ez duena. Gizarte honetan ezdeusa, garai batean aktorea baina orain eguneroko errutinan bakarrik aktuatzeko duena ohikotasunean eta senarraren eritmoan. Emakumeak, gorputz erdia leihotik kanpora dutenak. Pertsonaia ugari boterearen inguruan bilbatuak, edertasunari lotuak, baina eguneroko errutinan guztiz aparkatuak.

Bada beste ardatz tematiko bat azaltzen dena: aberastasuna, klaseak, estatusa. Kotxeen presentzia, kotxe antropomorfizatuak, sendi bihurtu direnak: Audiaren urruma, Animalia abisal bat Volkswagen Bora gris bat. Markako erropen nahiz objektuen aipamena, edota eskuen metonimia: "Amak beti esan dit norbaiten jatorria eskuetan igartzen dela".

Bukatzeko esango nuke, Rodriguezek hiru ipuin bildumetan idaztankeran nahiz gaiak jorrazteko moduan estilo propioa erakutsi duela. Eta aldaketarik egotekotan, Rodriguezek berak aitortuta gainera, ipuinak luzatzeko, narrazio motz bihurtzeko egin duen keinua azpimarratuko nuke. ■

Kartzelako euskal letren ibilbide-orria

Jokin Urainen *Ez dago etxean* liburuak euskal literaturan zoritxarrez sarritan errepikatu den fenomenoaren berri ematen digu: idazleak giltzapean egotea, alegia. Idazle preso eta preso idazleen lanari buruzko entziklopedia txikia da. Susak saiakera sailean argitara eman du eta Espainiako La Moraleja espetxetik idatzia da, Urain bera ere kartzelan

dagoelako. Euskal presoan ihesaldi ongi burutuak, zapuztuak eta amestuak aurkituko ditu irakurleak liburuan. Baina, liburua kartzelaldiko kronikaz osatua bada ere, idazleak munduari erreparatzen dio, eta gizartearen erradiografia eskaintzen du. Barrote artetik egindako askatasun ariketa. ■



Ez dago etxean.
Jokin Urain.
Susar.
186 orrialde.
17 euro.

Sinesmenak nola eskuratzen ditugun

Agustin Arrieta-Urtizberea filosofia irakaslea da EHUn. Alberdaniaren Zerberri saila aberastera datorren liburu honetan, pertsonok ditugun sinesmenei buruz gogoeta egitera gonbidatzen gaitu: nola eskuratzen ditugu usteak? Zer dela eta iltzatzen dira gudan? Ba al dugu kezkarik gure sinesmenen zehaztasunaz? Edozein gauza sinets al daiteke? Filosofiaz, zientziaz eta erlijioaz hitz egiten du *Sinesmenak eta usteak* liburuak, garrantzi berezia emanez erlijio-sinesmenen inguruko zenbait onarpenen ahulezia agerian uzteari. Kasu, uste zabaldur xamarra da baliorik gabeko basamortu bihurtuko dela erlijiorik gabeko mundua; hori gezurtatzeko saioa da, besteak beste, liburu hau. ■



Sinesmenak eta usteak.
Agustin Arrieta-Urtizberea.
Alberdania.
174 orrialde.
14 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



11 istorio, broncka ta gau ero!
Never Surrender.
Autoekoizpena.
Iraupena: 34'11". 8 euro.

Atzera ez, aurrera egin behar da, irudimenarekin

ARRASATEKO taldeak bigarren disko luzea argitaratu du eta emaitza oso txukuna da. Iraganeko pasarte eta esperimentzietan nostalgiaz begiratzen diete, baina egunerokotasunean sinistu eta lana irudimenez eta gogor egiten dute, sarri erakutsi izan duten bezala. Bestalde, nahiz eta laukoteak punk-oi! edo street-punk ildoko ibilbidea egina duen, oraingoan bestelako ukituak ere batu dituzte. Egia da 1977ko taldeak, Cicatriz, UK Subs, Iskanbila edota Die

Walter Elf gogora ekarri izan dizkidalde, baina baita Social Distortion, punk-rock'n'rolleroagoa eta abiadura biziagoa duten taldeak ere. Horrez gain, hitzek ondo erakusten dute Arrasaten —eta beste zenbait herritan— gazteek bizi dutena; eta taldea oi! patroietatik harago joan daitekeela ia beste inork baino hobeto erakusten duen adibide argia da.

www.myspace.com/neverarrasate

Never Surrender

«Gure belaunaldiak ez du borroka handirik irabazi, gauza asko eginak eman dizkigute»

“Hondoratzen hasi da ontzi zaharra, zurea ez den ametsean ito zara”; “Lantegia altxatu dutenentzat kalea dugu ordainetan”. Bazen ordua hemengo talderen batek fabrikei buruz hitz egiteko.

Gure belaunaldiak ez du borroka handirik irabazi. Gauza asko eginak eman dizkigute —euskaraz ikastea, soldadutzarik ez, gaztetxea—. Gaztetan hiru hilabeteko lana genuen gastuetarako. Orain langabezia dago eta gutxieneko beharrak asetzeko gorriak ikusi beharko ditugu. Ez dugu iraultza espero, baina jendearen pentsaera aldatuko da.

Hau da garena. Punk eta Oi! taldeek beti justifikatu behar dute beren burua?

Etiketek hasieran identifikatzeko balio badute ere, kaiola dira. Barrukoa atera nahi dugu musika-ekin, sormenari mugarik jarri gabe. Kritika gehienak onargarriak dira,

baina jende asko karratuegia da. Musika aldatuz doa eta ilea pixka bat luzatu zaigu. Estilo askotariko taldeak ezagutzea aberasgarria da.

Egizu aurre. Depresioari buruz sarri idatzi duzue. Arrasateko punkaren psikologoak?

Psikologoak baino gaixoak gara eta musika gure terapia. Atera beharreko lotsak, kezak... daude. Harro egon behar dugu, bakoitza den bezala onartu eta norberarengan

konfiantza izan, gutaz diotenari garrantzia kenduz.

Oi!-aren ezaugarri dira lagunartean abesteko kantak, zuenak bezala...

Bai. Zuzenak dira, edonork abes ditzake eta mezua argia da. Bidegabekeriak salatzeke tresna da guretzat musika, eta ondo pasatu eta lagunekin mozkortzeko aitzakia.

Extra moduan, tabernako folk kanta ederra egin duzue. Fiachras, Bizardunak, Pogues, Dubliners... gustuko dituzue?

Gustuko ditugu horiek eta baita Billy Bragg, Woody Guthrie, Levellers edo Ruper Ordorika ere, esaterako. Abestia modu espontaneoan sortu zen, ia diskoa grabatuta zegoenean, bateria-jotzailea Pragan zegoela. Anekdotikoa izan da, baina gustura geratu gara. Agian aurrerantzean... ■



Ezpalak

JON TORNER

Mondragon Unibertsitateak MUTElebista sortu du

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK MUTElebista (www.mondragon.edu/mutb) Internet bidezko telebista sortu du. Hiru atal izango ditu: asteroko erreportajeak, zuzeneko emanaldiak streaming bidez eta bideo gordailua. MUTElebista da Mondragon taldeko lehen telebista korporatiboa. Ikus-entzunezko komunikazio karrerako kideak arduratuko dira MUTElebista egiteaz, Idoia Astigarraga irakasleak koordinatuta.

Hogei herritako haurrek ipuin bat osatuko dute

EUSKO JAURLARITZAKO Kultura Sailak *Kontalaria* egitasmoa jarri du martxan, leku publikoetan euskaren erabilera indartzeko asmoz. Espazio ludikoa duen kamioi bat ibiliko da astebururo herririk herri, eta bertaratzen direnek ipuineko zati bat osatuko dute. Guztira hogeitak hiritatik igaroko da kamioia: Bilbo, Irun, Donostia, Deba, Tolosa, Beasain, Eibar, Durango, Arrasate, Oñati, Gasteiz, Audio, Galdakao, Barakaldo, Getxo, Bermeo, Mungia, Gernika, Lekeitio eta Zarautz.



Abian da Galtzakomik komiki lehiaketaren 3. edizioa

III. GALTZAKOMIK lehiaketa jarri dute martxan Ibarako Udalak (Gipuzkoa) eta Galtzaundi Euskara Taldeak. Hiru mailatan banatuko dira sariak: 12 urte artekoek marrazteko materiala, komiki-bilduma eta lanaren argitalpena irabaziko dituzte; 12-18 urte artekoetan, lehenengoak 400 euro jasoko ditu, eta bigarrenak 200 euro; 18 urtetik gorakoetan, 800 eta 600 euroko sariak banatuko dira. Azaroaren 19a baino lehen bidali behar dira lanak. Informazio gehiago, hemen: <http://ibarrakoliburutegia.blogspot.com>.



Lucia Lacarra dantzari zumaiaarra *Hamarkadako dantzari* izendatu zuten Moskun irailaren 26an. Kremlin jauregian egindako ekitaldian, 6.000 lagunen aurrean egin zuten izendapena, XXI. Mendeko Izarren Galan bi koreografia dantzatu ostean, *Presoa* eta *Thais*. Ekitaldiko zuzendari artistikoa Nadia Veselova-

Tencer izan zen. Egun, Municheko Operako Baletoko dantzari nagusia da Lacarra eta mundu osoko antzokirik dotoreenetan dantza egina da.

Joxean Agirre idazlearen *Zwei frauen* proiektuak jaso du Augustin Zubikarai beka. Epaimahaiak azaldu duenez, egitasmoak duen “interes eta balio intelektuallagatik” eman diote saria. Ondo bidean, datorren urtean kaleratuko du *Zwei frauen* eleberria. Duela bi urte argitaratu zen bere azken lana: *La lutte finale*.

Bide Ertzean

taldeak *Don Inorrez* (Gaztelupeko Hotsak) diskoa plazaratu du. Zazpigarren diskoa dute tolosarrek.

Azken honetan, berrikuntza bat dakarte, Euskadiko Orkestrako hari zortzikoteak hartu baitu parte grabaketan. Aurkezpen kontzertuak abenduan egingo dituzte: abenduaren 7an Durangoko Plateruenan, 10ean Bermeoko Kafe Antzokian eta 17an Donostiako Victoria Eugeniean.



ARGAZKIAK.ORG

Javier Usabiaga pintoreak *Biziren gainean*, *paperean gainean* erakusketa paratu du Donostiako Koldo Mitxelenako Ganbaran. Hirurogei lanez osatuta dago, akuarelaz, olio-pastelaz, argizariz eta klarionaz eginak. Tamaina txikiagoko 151 lanez osatutako DVD bat ere aurki daiteke. Azaroaren 13ra arte izango da ikusgai.

Hortzmuga taldeak *La espera* obra estreinatuko du hilaren 6an Bilboko BBK aretoan. Josu Monterok idatzi eta Raul Cancelok zuzendutako antzezlaneko protagonistak espetxetik ateratzear den emakumea eta hilzorian dagoen musikaria dira. Arantza Goikoetxea, Joseba Apaolaza eta Gurutze Beitia dira aktoreak.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Maddi Zubeldia kantari xaloa

MADDI ZUBELDIA kantari eta bakarlari! Hori usteka-bea! Zein ausarta! Ziburutik Hendaiara heldu zen irailaren 25ean. Abadiako Jauregiko kaperan aritu zen. Abadiaren Zazpiak Bat lema oroituz hasi zen Maddi. Mikel Laboaren omenetan abiatu zuen kantaldia, Bertolt Brecht-en *Liluraren kontra* gogotsu abestuz: “Lilurarik ez! Tronpatzerik ez! Kontsolatzerik ez! Denbora ez da luzea, ustelak lurpera, bizitza da handiena, galtzea litzake galtzea dena”.

Lete eta Valverde. Machado espainiarra, Cole Porter irlandarra, Jean Renoir frantziarra, Violeta Parra txiletarra... abestu zituen, besteak beste. Anton Abadia poliglotaren gisa aritu zen ziburutarra, goxo eta erraz. Bere estilora eta ahotsera ederki egokitutako kantak. Bereak ere eskaini zizkigun. Haurrekin biziazatutako letrak eta notak xarmanki uztartuak, baita gure herriaren egoerak iradokitako kanta bat ere. Euskal Herria iragaten ari den ataka luze eta gogorraren abesti eztigarriak.



Maddi Zubeldia, Abadia Jauregian (2010-IX-25)

Bere ahots eztigarriak kantari naturala bihurtzen du Maddi Zubeldia. Ramuntxo senarrarekin *a capella* abesten du tarteka eta Xano Urtzegiren akordeoiak, Txomin Arizagaren gitarrak eta Arkaitz Minerren biolinak eta mandolinak ederki babes-ten dute abeslariaren xalotasuna. Xalotasuna da Maddiren kantatzeko molde-*a*, xalotasuna eta naturaltasuna. Maddik ausardia gehitzen dio naturaltasunari. Ausardia kontrolatua igartzen zaio kantatzeko unean.

“Kantatzen duen herria, ez da inoiz hilko!” esaten da. Polita da gero, bizitzan jasotakoa helduaroan lagunei –eta herrikideei– eskaini ahal izatea. Maddi

Zubeldiak herria eta lagunak ditu gogaide bere ibilaldi musikalean. Joandakoez utzitako arrastoan ikasia eta esker onekoa da. Horregatik agurtu gintuen, naski, Violeta Parraren *Gracias a la vida* parafraseatuz.

Beharbada, herriko kantari xumeen garaia da. Maddi Zubeldia lekuko. Agian, Ziburutik Hendaiara, Azkainen gaindi, Bidasoan bestaldean ere bide egingen du Maddik. Agian! ■

2

KANPORAKETA

urriaren 17an,
BALMASEDAKO KLARET ANTZOKIAN
17:30ean

JOSEBA ARTZA
ASIER LEGARRETA
IKER BELAUSTEGI
IÑAKI ITURRIOTZ
LANDER IBARLUZEA
JONE URIA

Gai-emotza:
BERNAR MANDALUNIZ

LAGUNTZAILEA

Ihesi

AMAIA UGALDE

Argazkiak: Alberto Errazti

Euskal Herria ezagutuz:

Durango (Bizkaia)



Historiako altxorren azoka

Sorreratik inguruko herririk handiena izan denak badauka bere xarma. Elkargunea izaten da saltsa askotarako, hartu-emanetarako, azoketarako... Durango horrelakoa izan da sorreratik, XII. mendetik. Askok handitu den arren, ez ditu galdu bere historiako altxorrik ederrenak.

SAPUHERRI IZENA ere eman zaio inoiz Durangori, ez dago oso argi zergatik. Teoria asko daude horretaz. Urak garrantzia handia dauka Durangon (Ur-hango), Ibaizabal eta Mañaria ibaiez gain lur azpiko errekek dituelako. Herrian entzuten den beste kontu bat zera da: balitekeela, egun euritsu batean, Santa Anako arku berezi haren alboan, apoak zerutik jausi izana, euriaren antzera.

Santa Anako arkua aipatu dugu, herriko ikonoetako bat delako. Asteon hasiko diren San Fausto jaietan, arku horren gainera igoko dira Durangoko jaietako pertsonaiak: Patxikotxu eta Pantxika. Leku ona da herriko saltsa guztiak ondo zaintzeko.

Zaila ematen du Durango harresiz inguratutako herririka moduan irudikatzeak, baina horrelakoa zen hasieran. Sei ate zeuden Durango-

ra sartzeko, eta gaur egun zutunik geratzen den bakarra Santa Anakoa da. Merkatariake ate horretatik sartzen ziren, eta Santa Anako plazan azoka jartzen zuten. Iaz inguruetan indusketak egin zituzten, eta Erdi Aroko harresiaren zati bat topatu zuten, baita XV. mendekoa izan litekeen Santa Ana eliza zahararen arrastoak ere. Horrez gain, hilobiak, kanpaiak egiteko moldeak eta labeak, erreken lehengo kanalizazioak eta txanponak aurkitu zituzten.

Azoka herri

Azoken inguruan bizia egoten da herrietan, eta Durangon ere horrela izan da. Santa Ana plaza eta Andra Mariko elizpea ziren lehen azoka-guneak eta gaur ere herriko gunerik bizienetakoak dira. Santa Anatik Andra Marira alde zaharreko edozein kaletatik jaitsi daiteke.

Andra Mariko elizpea zabal-zabala da, egitura berezikoa, bazterretako zutoinak baino ez baititu zutunik mantentzeko. Horrexega-

Garai batean hirira sartzeko sei ate zeuzkan Durangoko harresiak. Gaur egun Santa Anakoa (argazkian) da zutunik geratzen den bakarra,





AMAIA UGALDE



Goian, Andra Mari eliza, herriko lehenengo azoka-guneetako bat. Ezkerreko argazkian, sokamuturraren omenezko eskultura. "Zezenak dira" sokamuturra Durangoko jaien bereizgarrietako bat da.

tik bihurtu da hainbeste talderen-tzat biltzeko leku. Elizpeak azoka asko hartu ditu bere historian. 1937ko martxoaren 31n, Durango bonbardatu zutenean, beste eraikin askoren artean Andra Mari eliza suntsitu zuten eta elizpean momentu hartan azoka zegoen. Hiru hamarkada geroago, Durangoko Liburu eta Disko Azokak elizpe haren babespean eman zituen lehenengo pausuak.

Tronperri

Durangori eman zaion beste izen bat da Tronperri da. Aditu batzuek

diote mendietatik adar bidez etorritako abisuei tronpeta antzerako tresnarekin erantzuten zitzaizela Durangotik. Beste teoria baten arabera, XV. mendean, Durangoko heresiek elkarrekin komunikatzeko erabiltzen zuten adarraren antzeko musika tresna. Durangoko heresiaren historia mamitsua da. Kurutze-santu museoan eduki daiteke beraren berri. Museo hori orain dela gutxi arte kalean egon den Kurutziagako gurutzearen ingurukoa da.

Gurutze misterioa da Kurutziaga. Herrian ospea eta garrantzia duen arren, inork ez daki nork egin

zuen eta zer helbururekin. Adituek hiru funtzio egotzi izan dizkiote: herriko mugetako bat markatzea, Jesukristo gurtzea eta bekaturen bat ordaintzea. Azken teoria hori inkisizio garaiarekin lotzen dute, Durangoko heresiarekin. Anboto inguruan egiten omen ziren akela-reen ehizan etorri ziren inkisido-reak Durangaldeara. Horrez gain, Frai Alonso Mellakok sortutako talde batek elizan legeak ez zirela behar eta eraldaketa baten premia zegoela esaten zuen, eta heresia leporatu eta zigortu zituzten. Sorgin ehizak Durangaldean 100 pertsona inguru zigortu zituen.

Saltsa herri

Asteon San Faustoetan saltsa ugari egongo da Durangoko kaleetan. Jaien bereizgarri bat "Zezenak dira" izeneko sokamuturra da. Antzinatik, XVII. mendetik datorren ohitura da. Alde zaharreko hainbat txokotatik ibiltzen dira zezenak, eta abesti bat ere badauka sokamuturrak. Saltsazaleak izanagatik edo, durangarren artean kantu egile bat baino gehiago egon da. Hor dago De la Fuente anaien historia. Zilargileak ziren anai horiek, plateruak. XVIII. mende amaieran eta XIX. mende hasieran ezagun egin ziren bertso-egile, musikari, kantari eta dantzari ibiltzen zirelako. Gaztelatik etorritako mutilzaharrrak euskaraz bizi ziren Durangon. Euren bertsoetako batean honakoa kantatzen zuten: "Ez diamante ez perla ez urregoriric / alegrantzija baño ez dago oberic". Euren omenez hartu du izena herriko kafe antzokiak: Plateruena. ■



DURANGOKO

EUSKARA ZERBITZUA

Barrenkalea, 17

48200 DURANGO

Tel.: 94 603 00 16

Faxa: 94 603 00 26


euskera@durango-udala.net

www.durango-euskaraz.net

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Zerbitzu publikoak erabiltzeagatik, administrazioak partikularrei eskatzen dien kontraprestazio ekonomikoa. Bezala. 2. Bokale. Alde!, ospa! 3. Noren atzizkia. Marmol, haitzurdin. 4. Halaber. Garoa, iratzeta. 5. Kriptonaren sinboloa. Erraztu, eramangarriago bihurtu. Musika tresna handia. 6. Uste, susmo. Lituaniako herritar. 7. Aupats, poker. Lurraren gainazaleko materialak partikuletan desegin. 8. ... Iturriaga, bertsolari bizkaitarra. Irautera behartu.

Goitik behera:

1. Tiro egin. 2. Nazio, herri. 3. Osasuntsu. Alderdi karlista. 4. Adia, auhena. Aitoren semeen artean, mailarik apalenekoa. 5. **Argazkian**. 6. Zikin, lizun. Nori atzizkia. 7. Zein. Lantzen den lur-zati mugatu. 8. Antxumea. 9. Zurrutada. 10. Zuhaitz mota. Nihaur (alderantziz). 11. Labean erabiltzen den pala. 12. Norbait. 13. Aisatu aditzaren erroa. 14. Nago. 15. Oroipen.

Sudokuak

Erraza

4		6			2		3	5
2		7			5	1	9	4
			1			7	2	
		2	5	1				9
			2		7			
7				8	9	3		
	5	8			4			
9	7	3	6			5		8
6	2		7			9		3

Zaila

				5	2	7	
				2		8	6
	5	9		6			
7				1		8	4
4	1		2				5
				1		3	2
9		1		3			
	4	8	5				

Maitasun jolasak



Aspaldi elkar ikusi gabeko bi adiskide beren bizitzetara errepaso ematen ari dira, kafea hartzen ari diren bitartean. Elkar-riketaren une batean, bikotekideekin dituzten harremanez hasi dira hizketan:

– Gorka oso jatorra da baina egia esan, ohean ez da batere ondo moldatzen. Beste guztian bai, baina horretan ez dut zorte handiegirik izan. Eta zuek? Ondo moldatzen al zarete izarapean?

– Tira, hainbestean! Bart gauean, esate baterako, ni Hawaiiko dantzarien modura

jantzi nintzen. Andonik, berriz, Tarzanen tanga bat ipini zuen eta alfonbran etzanda nengoela bera egongelako mahaira igo, lanparatik zintzilikatu eta nire gainera bota zen, Afrikako musika ozen-ozen jarrita geneukan bitartean...

– Eta horrek benetan eragiten dizue? Benetan kitzikatzen zaituzte?

– Kontxo! Pittin bat bai...

Baina ikusiko bazenu haurrek ze barre algarak ateratzen dituzten!

Soluzioak

3	1	6	8	5	7	4	9	2
6	2	4	7	3	1	5	8	9
5	7	3	6	2	1	8	4	9
1	5	8	3	9	4	2	6	7
7	6	1	4	8	5	3	2	9
8	9	5	2	7	6	4	1	3
4	9	2	3	7	5	6	8	1
5	8	2	5	1	6	4	7	9
8	9	5	1	4	3	7	2	6
2	3	7	8	6	5	1	9	4
4	1	6	9	7	2	8	3	5

Erraza

Zaila

3	4	8	5	7	2	9	6	1
9	2	1	6	3	8	5	4	7
5	6	7	4	1	9	3	2	8
4	1	3	2	8	6	7	9	5
7	9	2	3	5	1	6	8	4
6	8	5	7	9	4	1	3	2
7	9	2	3	5	1	6	8	4
2	5	9	8	6	7	4	1	3
1	7	4	9	2	3	8	5	6
8	3	6	1	4	5	2	7	9

Ezker-eskuin: 1. Tasa. Anzua. 2. Ibat-aho. Ut. 3. Ren. Marbre. 4. Orobait. Ima. 5. Krr. Aisatu. Piano. 6. Aieru. Iruanar. 7. Korroik. Erosio. 8. Unai. **Goitik behera:** 1. Tirokamu. 2. Alberti. 3. Sano. Eka. 4. Ai. Baroi. 5. Amariu. 6. Abatis. Ri. 7. Nor. Aior. 8. Brikka. 9. Zurrut. 10. Orea. Uen. 11. Para. 12. Inor. 13. Aisa. 14. Natz. 15. Oroi.

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

<http://www.argia.com/makilak.htdocs>

Osasuna

JABIER AGIRRE

Nola gainditu umeen kasketaldiak

KASKETALDIEK HARRIDURA ETA EZINEGONA eragiten digute helduoi. Baina umea zein egoeratan aurkitzen den onartzea eta haren premiei irteera eta konponbidea emateko beste modu batzuk aurkitzea da, zalantzarik gabe, kasketaldiari aurre egiteko modurik egokiena, bai umearentzat, baita helduentzat ere.

Imajina dezagun egoera, ez da-eta hain arraroa: hipermerkatu batean gaude eta umea erosketa-orgaren barruan doa, han-hemen arreta deitzen dioten objektuetara eskua luzatuz. Gurasoa, ordea, estresak jota dabil, korrika eta presaka, erosketak nola edo hala bukatu nahian, etxera joateko irrikan. Umeak zerbait nahi du, baina gurasoak ez dio kasurik egiten. Orduan haurrak helduaren baimenik gabe zerbait hartu du eta gurasoak —nahiko modu zakarrean, egia esan—, zegoen lekuan uzteko agintzen dio.

Umea gero eta okerrago portatzen ari da, eta inguruko guztiak, pertsona helduak ia gehienak, ados daude, “gaur egungo umeak ikaragarriak dira, eta ez diete inolako errespeturik gurasoi”.

Ondoren gerta daitekeena aski ezaguna da. Inork ez du amore ematen, umea nahiko petralduta dago eta gurasoak ez du bere “autoritatea” galdu nahi, inondik inora. Ondorioa? Ezinegona, urduritasuna, eta handik joateko, desagertzeko gogo. Eszenak ez dauka amaiera zoriontsurik. Denak haserre, errua elkarri botaz, gauzak beti (besteak) gaizki egiten dituelako.

Eguneroko bizimoduan hain arruntak diren egoera horiek ez dira errazak umearentzat, batez ere aurrez nekatuta, aspertuta edo bakarrik sentitzen bada. Umeak handik irten beharra dauka, besterik ez. Baina helduei ere antzeko zerbait gertatzen zaigu. Aurre egin ezin diezaiokegun egoera baten aurrean aurkitzen garenean, urduritasunak eta ezinegonak harrapatzen gaitu, gure onetik ateratzen gaituen arrazoiari ez diogu kasurik egiten, batez ere estutasunetik ateratzeko baliabiderik ez badaukagu. Bada, hori helduoi gertatzen bazaigu, pentsa zein erraz gertatuko zaien guk baino askoz ere baliabide gutxiago dituzten haurrei. Horregatik, saia gaitezen beraien lekuan jartzen, eta eman diezaiegun benetan beraiek diren bezala espresatzeko eta agertzeko aukera, haiei ere geure jardueraren barruan sartzeko modua eskainiz.



PICSDIGGER.COM

Eboluzioaren ordainetan, diabetes gehiago

Espeziearen eboluzioak prezio garestia izan dezake. Hala, onura jakin bat ekartzen digun gene berak gaixotasun bat izateko arriskua handitu ahal du. Aurkitutako azken adibidea 1 motako diabetesa errazten duen gene bat da.

<http://ttiki.com/17157> (Gaztelaniaz)

Gaixoaren hurrekoek hobeto antzeman dezakete alzheimerra

Ondorio horretara ailegatu da ikertzaile talde estatubatuar bat, AD8 izeneko testa probatu eta gero. Test berriak minutu bi besterik ez du irauten, eta memoria arazoak dituen gaixoari egin beharrean —ohi bezala—, senide edo lagun bati egiten zaio. Modu horretan lortutako emaitzak fidagarriagoak dira test tradizionalenak baino.

<http://ttiki.com/17235> (Ingeleseaz)

Elikadurari alergia dioten umeek bullying-a jasan ohi dute

AEBetan egindako ikerketa baten arabera, elikagairen bati alergia dioten 5 urtetik gorako umeen %35ak jazarpena jasaten du. Gai honi buruz egin den lehenbiziko ikerketa da.

<http://ttiki.com/17236> (Ingeleseaz)

Unai Brea

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



CARLOS REGLA

Armand David (Ezpeleta 1826-Paris 1900)

Zuhaitzen abaroan daudenek sortzen didaten inbidia. Edinburgokoek oraingoan, hango Botanikoan baitago argazkikoa. Etxean aldatuta daukat, baina oraindik ume bat izanik ez du lorerik ematen. Eskoziar hau bai, oparo, loraz gainezka. Lagun bat izan berri da musu-zapiak diruditen loreon gerizpean, nire debilidadez gogoratu eta to, hor bidali dit argazkia. Gaztelaraz hala deitzen diote zuhaitzari *arbol de los pañuelos*. Izen zientifikoa *Davidia involucrata* du. Armand David fraide eta naturazale lapurtarraren omenez. Panda artzaren berri berak eman zuen, baina bere abizena ohorezko izen gisa daramana zuhaitz hau da. *Davidii* edo *armandii* izenak daramatzaten landareek ere bera dute ohoratzen.

OKERRAK ZUZENTZEN

Zuzentzeko grinak okerreko izenburua jartzeraz eraman gituden joan den asteko artikuluan. “Asarrea” zen, berez, izenburua, eta ez “haserrea”, guk jarri bezala. Testu barruan akats bera egin genuen: gorbeldi “hasarre” bihurtu genuen berez gorbeldi “asarrea” zena, alegia, oso gorbeldi handia.

Bobobo edo goia

IZENIK EZ DUGU euskaldunok, noski, makina bat landarerentzat. Esku artean dugun arte ezin izendatu. Orain dela bi asteko *Anacardium occidentale* landareari “anakardo” edo “cajurra” deitzeaz ari nintzela, etxeko larreetara kamamiletara etortzen diren ama-alaba batzuek egin zidaten galdera: Kuba aldeko “condiamor” landarea ezagutzen ote dudan. Otañoren bertsoko onbuz galdetu zidatenean bezalaxe, arrastorik ere ez. Batean eta bestean zoko mian ibili ostean sendabelarra dela jakin dut. *Momordica charantia*-ren euskal izenik inondik ere ez ordea... Hemen ere zerbait sortu beharko dugu. Sortu edo, adibidez, Osasunerako Mundu Erakundearen sendabelarren zerrendan jasoak dituen bere zientia batetik gorako tokiko izenen artetik aukeratu: african cucumber, amargoso, ampalaya, art pumpkin, asorosi, assorossi, balsam apple, balsam pear, Balsambirne, balsamina, balsamino, ban kareli, baramasiya, barbof, bitter cucumber, bitter gourd, bitter melon, bitter pear melon, bobobo, broomweed, calaica, caprika, caraila, carilla, cerasee, concombres, condiamor, coraille, cun de amor, cundeamor, ejirin, embusabusu, eyezom, futoreishi, goya, haagala-kaayi, hagalakai, 'ha, 'hail, kaakara kaaya, kabiral, kaippa, kakara, kakayi, kakiral, kakle, kakral, karala, karavella, karavelli, karawila, karela, karla, karlara, karolla, kathila, khor qua, khyar carilla, kokouli, kugua tea, kuguazi, lenzaa, lumbalumba, lumbuzi, ma ra, machete, maha, maiden apple, maiden's blush, manamat, mange kuli, mara, mara kheer nok, margoze, mbosa, mbunbulu, melao de sao caetano, meleni, mexicaine, miniklallasni, momotica, mreah, muw, nagareishi, nania nania, nara cheen, nguene, nigauri, nyanyra, nyinya, okookoo, pagel, paharkai, palia, panaminik, papari, papayilla, papilla, paria, pavakka, pavel, phak, paroka, pavackkai, pavakkachedi, pepino montero, peria, periya laut, phakha, pom kouli, pomme nerveille, pomme z'indiens, pomme-cooli, qara a mor, qisaul-barri, quisaul-barri, serimentok, seripupa, saga, sail, salara, sorosi, sorrow see, sushavi, tasplira, tofahal, uchhe, ulhimar, varivalli, wild balsam pear, wild sopro, yesquin, zague, zrou...

Euskararako ez al da dotorea bobobo, edo goia, edo salara, edo peria, edo karela, edo kakara, edo...



Euskaraz nola esan honi?

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Nolakoa da infernua?



Jeronimo Bosch (1450-1516) margolari flandriarrak XVI. mendearen lehen urteetan infernuaren ikuspegi pertsonala irudikatu zuen *Atsedenen lorategia* triptikoan.

EUROPA, XVI. MENDEA. Erreforma protestanteak aldaketa sakonak eragin zituen kristautasunean. Baina europarrek infernuaz zuten ideia aldatu al zuen? Warwickeko (Ingalaterra) Unibertsitateko katedradun Peter Marshallék galdera horri erantzun dio *Journal of Ecclesiastical History* aldizkarian argitaratu duen ikerlanean.

Marshallen arabera, lehen begi kolpean teologo katolikoek eta protestanteek betiereko zigorrak

antzeko kontzeptua zuten. Izan ere, lehen protestanteek ez zuten gaia sakonean eztabaidatu eta sarri katolikoek deskribapenak erabili zituzten. Esaterako, “luxua eta plazera maite dutenak alkaterna beroz eta sufre kirasdunetz bustiko dituzte eta bekaiztiak zakurrak bailiran garrasika ariko dira oinazearen oinazez” testua batzuek zein besteek erabili zuten.

Erreformazaleek purgatorioa ezabatu zuten, infernua zen zigor bakarra eta, horregatik, ezinbestekoa zen fededunek abernuaren izugarrikeriak presente izatea. Hala, Arthur Dent protestanteak 1608an esan zuenez, munduko aritmetikari guztiek bizitza osoa pentsa zitzaketen zenbaki luzeenak idatzi eta zenbaki guztiak batuta ere, emaitza oso urrun legoke “bekatariek tormentuak pairatzen eman behar duten denboratik”.

Baina ñabardurak ere sortu ziren bi korronteen artean. Katolikoentzat infernuko sugarrak benetakoak ziren, fisikoak. Protestanteek, aldiz, alegoriatzat zuten su eternala. Thomas Tuken arabera, “sua benetakoa balitz, benetako erregaia beharko luke eta erregaia agortzean, sua ere itzaliko litzateke”. Infernuaren kokapen geografikoari dagokionez ere, ez zetozen guztiz bat katolikoekin. Azken horientzat infernua luraren erdigunean zegoen. XVI. mendean Alejo Venegas apaiz espainiarrak zehatz kalkulatu zuen lurrazalaren eta infernuaren arteko distantzia: 1.193 legoa. Eskriturretan ez zen puntu horri buruzko informazio zehatzik ematen eta, hortaz, protestanteek uko egin zioten kokapen fisiko jakin bat proposatzeari.


Beraz, Marshallen esanetan, protestanteek zalantza handiagoz jorratu zuten gaia eta horrek ere eragina izan zuen pentsamendu erlijiosoan infernuak izan zuen gainbeheran.

Arrastoak

Antzinako Egiptoko altxor agorrezina

SHENDWAS ETA KHONSUREN HILOBIA, polikromia biziz apaindutako eraikina (argazkian) induskatu berri dute Saqqara inguruan, Yiser al-Mudir hilerrian. Nekropoli horretan industen duten lehen hilobia da V. dinastiako hau. Horrez gain, Saqqaran bertan Petah Mis generalaren hilobia ere aur-

kitu dute, XIX. dinastiakoa. Al Fayumeko oasian, berriz, 57 hilobi topatu dituzte eta horietako askoren barruan, zurezko sarkofagoak eta momiak. Etengabeko aurkikuntzek, mendetako arpilatzearen eta indusketen ondoren, basamortuak oraindik altxor izugarria gordetzen duela erakusten dute.



WWW.DAILYCALLER.COM



Josep-Lluís Carod-Rovira

«Orain politikak zahar usaina du»

Josep-Lluís Carod-Rovirak (Cambrils, Katalunia, 1952), Kataluniako Gobernuako lehendakariordeak, hirukoaz eta Kataluniak bizi duen garaiaz balantzea egin du, eta borondatea azaldu du herrialdearen norabidean eragiten jarraitzeko, alderdi barrutik edo kanpotik.

GEMMA AGUILERA / EL TEMPS

Argazkiak: Jordi Play

Zein asmo duzu, Carod-Rovira jauna, azaroaren 29rako?

Konprobatuko dut 28ko gauean atera izan diren emaitzak telebista publiko katalaneko albistegiak erakusten dituen berdin-berdinak ote diren.

Eta behin hori begiratuta?

Nire bulegoko paperak jasotzen hasiko naiz, zeren eta aste batzuk beranduago Parlament-a eratuko da eta Eguberriak inguruan gobernu berri bat egongo da, baina nik ez dut horretan parte hartuko.

Hamabi urterekin alderdi politiko bat sortu zenuen, CULL (Catalunya Unida i Lliure). Zaila da sinestea, militantzia politikoan izan duzun ibilbidearekin, gauzak jaso eta politikatik urrunduko zarenik, zentzu horretan izango duzu beste asmorik...

Kataluniako herritarren %99,9 ez dira Parlament-eko diputatuak. Gauza normalena da diputatua ez izatea, eta ni normaltasun horren parte izango naiz. Hogeita hamar urtetik hona lehenengo aldia izango da hauteskunde kanpainan parte hartuko ez dudana, 1980ko Nacio-

nalistes d'Esquerra-tik, baina Parlament-ean sartu aurretik politika egiten nuen, diputatu izan naizen bitartean egin dut eta jarraituko dut egiten. Ezkerreko nagusitasun nazionala egotea nahi dut eta lanean jarraituko dut independentista izan dadin.

Zer tresna eduki espero duzu politika egiten jarraitzeko? Alderdi politikoa da, oraingoz, eragin-tresna nagusia. Kataluniak oinarritzko bi arazo ditu: guztioi eragiten digun krisi ekonomikoa, eta aurrera egiten ez duen

eredu politiko demokratiko bat. Orain politikak zahar usaina du. Hau sistema demokratiko osoaren arazoa da, baina demokraziaren krisi zehatzarekin batera, Kataluniak badu beste arazo bat, bertoko alderdi politikoek eta beren egungo egiturek ez dutela balio, ez direlako pentsatuak izan Katalunia azken aldian sartu den etapa berrirako; eztabaida ez baita jadanik federalismoa eta autonomiaren artekoa, federalismoa eta independentziaren artekoa baizik.

Eta orduan, zertarako izan da pentsatua indarrean dagoen alderdien sistema?

Oraingo alderdien egitura, frankismoaren kontrako borrokaren eta autonomien estatuaren ezarpenaren ondorio da. Baina jadanik beste fase batean gaude, eta bi aukera sortu dira: federalismoa edo independentzia. Alderdien sistema ez da egokia, herrialdearen etorkizuneko nazio aukera aldatu delako, eskuinak ez du diskurtsorik eta ezkerrek diskurtso klasiko eta zaharkitua du, zeren eta federalismoa ezinezkoa da Espainian. Hori defendatzen jarraituz gero, Espainiak arbuatzen duen gauza baten alde denbora, dirua eta energia galtzera kondenatzen da Katalunia.

Bidea federalistentzat. Eta independentistentzat? A-28ko hauteskunde hauetan abaniko zabala dago: independentzia aldarrikapen aldebakarrekoa –momentuz, eskaintza bikoitzarekin–, eta ERCren aldetik, independentziari buruzko nazio kontsulta ofiziala. Nahikoa al da eskaintza?

Hauteskundeak hurbilegi daude subiranotasunerantz egingo lukeen nazio prozesua modu egokian preparamatzeko. Ez dago betarik.

Hautesleak engainatzen dituzte aipatu eskaintzok?

Asko izutzen nau jendeak zein arinkeriaz hitz egiten duen estatu berri bat sortzeaz. Ba al dakite, zehazki, zertaz ari diren? Nahi baduzu, nik oraintxe aldarrikatuko dut independentzia eta *cavarekin* egingo dut topa, baina zeinek egingo dit kasu? Ez da pentsatu nazioarteko eszena-

tokia nola prestatu behar den, ezta zein inteligentzia, seguritate eta diplomaziarako egitura sortu daitezkeen ere, edo enpresaritzan eta gizar-te zibilean zein konplizitate izango duen. Hori ez da hilabete batzuetan inprobisatzeko, ez urtebetean, ez bitan, hirutan ezta lautan ere.

Zerorrek egin zenuen 2014rako erreferendum baterako proposamena, eta zure alderdiak gobernua osatzeko baldintza bezala jartzen du, aliatuek erreferendum baten deialdia babestea...

Lehenik eta behin, asko poztzen naiz ERCk azkenean positibotzat baloratzea nik hiru urte atzera proposaturiko zerbait; mundu guztia, salbuespenik gabe, gainera etorri zitzaidan, eta batzuk nire proposamena barregarri utzi nahi izan zuten. Hori bai, erreferenduma aurretik egindako politika baten amaiera izan behar du, eta ez inprobisazioaren fruitua. Erreferendumen aldekoa naiz, batez ere irabazten direnean. Sortzen ari den independentzia egoera batean mantendu nahi badugu, Quebec-en bezala, zorroztasunez egin behar dugu lan, eta ez bazterretik.

Ez duzu posible ikusten kontsultadatorren legealdian?

Nik duela hiru urte esan nuen, baina orduan zazpi urteko tartea zegoen. Eta 2014an ez, baizik eta 2015ean bada, oraintxe sinatuko dut. Baina dena dela ere, erreferendumak ez ditu antolatzen pertsona batek, ez alderdi batek, ezta auzo elkarte batek ere, gobernuek antolatzen dute. Edo ondo egiten da, edo eragingo duen gauza bakarra frustrazio handiagoa izango da.

ERCko zuzendaritzak jada ez zaitu kontuan hartzen?

Publikoki esan dut esandako guztia, baina ez pentsatzen dudana guztia. Hauteskundeak aurretik ez dut ERCri buruz komentario bakar bat ere egingo.

"Nahi baduzu, nik oraintxe aldarrikatuko dut independentzia. Baina zeinek egingo dit kasu?"



Hiruko gobernuan zazpi urte, pena merezi izan al dute independentista batentzat?

Zalantzarik gabe, bai. Alternantzia politikoa deitzen dena, sen on demokratikoa da. Diktaduraren ondoren sozialismoa Espainiako gobernura itzuli zen bezala, edo EA] Euskadira [*País Basc*, katalanezko bertsioan], ERCk Kataluniako gobernura itzuli behar zuen zirkulu demokratiko nazionala ixteko. Eta modu berean, sei hamarkadaren ondoren, Kataluniak ezkerreko gobernu bat berreskuratu zuen. Baina, nire ustez, faktore erabakigarria da Kataluniak José izeneko pertsona bat aukeratu duela lehen-dakari, eta José izena du, José izena nahi duelako, eta Andaluzian jaioa.

Hain zuzen, apustu horrek banaketa sortu zuen ERC barruan.

Helburu oso garbia zuen, amaitzea katalanen eta beste katalanen diskurtsoarekin. Oraintxe gehien ardurtzen nauena da, hauteskundeak bertan direla-eta klasismo etnikoa azaleratzen ari dela, katalanago zein den eta zein ez den erabakitzeke patentea duela pentsatzen duen sektoreen artean, batez ere konterbado-reak. Zorionez, herrialdea Rodríguez



“Hauteskunde biharamunean kuota ordaintzen duen militante hutsa izango naiz”.

askok defendatzen dute egun, Ferrer askorekin batera, eta interesagatik Kataluniaren kontra mugitzen diren asko ere Rodriguez eta Ferrer izena dute. Molestatzen naute *tik* hauek. Bartzelona, Baix Llobregat eta gune metropolitanorik gabe Katalunia independente izan litekeela pentsatzen duen inozoa, zaindu dadila. Klasismo etnikoko *tik* horiek desagertzeko borrokatuko dut. Eta galdetzen hasten bagara zertaz hitz egiten duen jendeak etxean eta zertaz hitz egiten zuen, benetan dibertigarria izan liteke. Has gaitezke alderdi handienekin.

Orduan, ERCren apustuak PSCrekin egindako itunaren alde, merezi izan du? Badago esaten duenik apustu horrek krisi larria ekarri duela alderdian, bai eta hauteskunde beherakada nabarmena aurreikustea ere.

Hasteko, benetan harrigarria da alderdi batean jendea egotea oposizioarako bokazio gehiago duena gobernurako baino. Munduan leku gutxitan ikusiko da horrelakorik. Egia izango balitz hiruko gobernu honetan parte hartzeak desgaste bat sortu duela, 2006ko hauteskundeen nabaritutako genuen. Niretzako, emaitza hoberenak ez ziren

2003koak izan, hori jadanik tokatzen zen, Pujol bazihoan. Baina 2006an, oraindik ere irauten duen nire kontrako jipoi mediatiko baten ondoren, eta askotan alderdi barruko egituraren konplizitate apur batekin, 21 diputatu ateratzea arrakasta izan zen.

Eta zer egin du gobernu honek?

Ekintza politikorako eredu berria sortu da: oposizioarekin, patronalarekin eta sindikatuekin egindako nazio paktuak sartzen dira bertan. Sortu da, baita ere, Katalunia lurralde oso bezala hartzeko kontzepzio bat azpiegiturak planifikatzeko. Eta

zalantzarik gabe, konplexurik gabeko kanpo politika zabaltzeko legealdia izan da honakoa. Kultur politikari dagokionez, Ramon Llull institutuaren sorreratik zinemaren legera, balantzea oso positiboa da. Datorrena datorrela, hizkuntza katalanak kohesio sozialerako izan behar duen oinarritzko funtzioaz adostasuna dago, zalantzak ditut lehenago horrela ote zen; eta Katalunia nazioa dela baieztatu da.

Hauteskunde aritmetikak ahalbidetuko balio ERCri giltza famatua izatea, hirugarren hiruko batean sinestuko al zenuke?

Galdera horri ezin diot erantzun, ez bainago inongo alderdiren buruan. Nik oso ongi dakit zer egingo nukeen, baina hauteskunde hurrengo egunean ERCren baseko militantea izango naiz, bere kuota ordaintzen duena.

Agian ERC ekidistantziara itzuli da, zu hautagai zinenean baliatu zenuten estrategiara. Batzuetan ERCK hirukoari oposizioa egiten diola ematen du, eta inoiz edo behin CIUri keinuren bat egiten diola ere bai.

Niretzako kezkarriagoa da alderdi batek oposizioarako bokazioa izatea, alderdi politiko demokratiko batekin edo besterekin gobernatzea baino. Kezkarria litzateke jendeak bere botoarekin konfidantza agertu dion alderdi batek, esatea —behin botoak eskuratuta— oposizioan egon nahi duela, bere ardurak ez onartzeagatik. Gobernurako bokazioa izan behar du, eta aukeratzeko indarra baldin badu, aukeraketa hori oso egoera taktikoek baldintzatuko dute. ■

SOLOZABAL

*Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

Eraikuntzarako materiala

GALPARSORO

Salmenta:

axulejo eta gresa
komunak • manparak • komuneko altzariak
obra hondakinen bilketa

☎ 943 300 145

Faxa: 943 300 012

Borda Berri industrialdea, 5. pab.
Andoain (Gipuzkoa)

Aurrezki kutxak

Pribatizatze eta bankarizatze bidean


Espainiako Gobernuak onartu berri duen finantza sistemaren erreformaren ondorioz, aurrezki kutxek –baita Hego Euskal Herrikoek ere– azken mendean izan duten ereduari agur esan diote eta, hemendik aurrera, kutxek, pribatizatuta eta bankarizatuta, banku tradizionalen antza handiagoa izango dute ohiko aurrezki kutxena baino; horrek, besteak beste, ehun urtetik gorako historian gizarte ekintzaren bidez bete duten funtzio soziala arriskuan jartzen du.

DANIEL UDALAITZ

KUTXA

HEGO EUSKAL HERRIAN nahiz Espainiako Estatu osoan azken mendean izan dugun aurrezki kutxen ereduari agur esateko ordua iritsi da. Horixe ondorioztatzen da azken asteotan Espainiako Gobernuak abiatu duen finantza erreformatik. Uztailearen 9an *Aurrezki Kutxen Organo Errektoreen Legea* (AKOEL) erreformatzeko errege lege dekretua onartu zuten, euskal lurraldeetan ere legeak ezartzen dituen Espainiako Gobernuak azaldu zuenez “espainiar finantza sistema indartzeko”. Erreforma horrek aurrezki kutxak erabat pribatizatze eta bankarizatze bidea zabaldu du. Horrenbestez, arriskuan jartzen da kutxek ehun urtetik gorako historian bete duten gizarte ekintza ere. Horixe salatu dute sindikatuek eta kontsumitzaile elkarteek, erreformak nagusiki bankuei eta espekulazio interesei onura egiten dietela argudiatuz.

Zenbait aurrezki kutxaren egoera larria da, beren lurraldeetako amarru politikoek kutsatuta daudelako eta beren jardueraren zati handi bat adreiluaren negozioira bideratu dutelako. Horrek, nagusiki, iraultza finantzarioa eragin du. Horrek guztiak kutxa askoren porrot praktikoa ekarri du. Ez,



Euskal aurrezki kutxek, oro har, profesionalki kudeatu dute larrialdi finantzarioa.

ordea, euskal aurrezki kutxena, oro har profesionalki ondo kudeatu baitituzte, horietako batek, BBK-k Cajasur entitate andaluziarra erreskatatzearaino. Gogoan izan Europar bankuei eta kutxei egin zaizkien

kaudimen azterketak nota onez gauditu dituztela EAeko hiru aurrezki kutxek. Dena den, beste euskal kutxak, Nafarroako Kutxak, ez zuen azterketa gauditu, baina dagoeneko indartzeko neurriak

hartu ditu. Eta hala ere, erreforma kutxa guztientzako da.

Lau eredu, edo neurrira egindako lau jantzi

Erreformari esker, kutxek akzioen moduko parte-hartze kuotak –eskubide politikodunak zein gabeak– jaulkitzeko aukera izango dute. Bi kasuetan kuotek ezingo dute kutxen ondasunen %50 gainditu. Hala, aurrezki kutxek kapital pribatua lortzeko erraztasun handiagoa izango dute. Kuotek Burtsan kotizatuko dute eta dibidentuen bidez ordainduko dira, akzioak bezalaxe. Jaulkipenen muga kutxa bakoitzaren ondasunen %50 izango da.

Erreforma kutxentzat lau eredu ezartzen ditu; neurrira egindako lau jantzi. Lehen ereduaren arabera, kutxa izaten jarraitu ahal izango dute, kuota erregimen berria onartuta eta estatutuak gobernu korporatiboaren arauetara egokituta. Bigarren ereduak Babes Sistema Instituzional (BSI) baten barruan sartzeko aukera emango die, hau da, “fusio hotza” deritzona hauta dezakete. “Fusio hotza” onartzen duten kutxek entitate zentral gisa banku bat izango dute, eta kutxek gutxienez banku horren parte-hartzearen %50 izango dute. Burtsan %50 baino gehiago salduz gero, kutxak izateari utziko diote eta fundazio bihurtu beharko dute.

Hirugarren ereduari, kutxa izaten jarraitu ahal izango dute, finantza negozio guztia banku baten eskutan utzita, baina eskumendekoaren akzioen %50ari eutsiz. Gizarte ekintza eta negozio industrialak kutxan geratuko dira. Laugarren ereduari dagokionez, kutxak kutxa izateari uzteko eta fundazio bihurtzeko aukera izango dute, negozioa banku baten eskutan utzita, beti ere banku horren parte-hartzearen %50 baino gutxiago dutenean.

Gizarte ekintza arriskuan

Orain arte aurrezki kutxek etekinen %20 gizarte ekintzetara bideratzen zuten. Legeak gizarte ekintzara gehienez ere mozkinen %50 bidera daitekeela ezartzen du, baina ez dago derrigorrezko gutxienezko ekarpenik. Bankuek, aldiz, mozkinen %50 dibidendutan akziodunen artean banatzen dute. Kutxen gizarte ekintzak lehentasunezko helburu hauek izan ditu: hirugarren adineko egoitzak, haurrentzako udako egoitzak, minusbaliatuentzako arreta, medikuntza zentro espezializatuak, krisian dauden enpresei laguntza eta abar. Horren guztiaren ondorioz, lanpostuak sortzen eta eusten ere lagundu du gizarte ekintzak.

Kutxek gizarte ekintzari egiten dioten ekarpena sektorearen etekinekin batera behera egiten ari da. Hemendik aurrera, bankuen kuotak edo akzioak dituzten kutxek dibidendu horiek ordaindu beharko dituzte eta, gainera, gizarte ekintzaren martxa eraman beharko dute. Egoera berriak indarra kendu diezaioke gizarte ekintzari. Kutxen zuzendaritzaren eta kudeaketa ahalmenaren menpe egongo da hori. Kutxak privatizatzen eta bankarizatzen badira, horien kontrola ez da, orain arte bezala, erakunde publikoen –diputazioen, udalen eta, beraz, alderdi politikoen– eta sindikatuen esku egongo; esku pribatuetan ere egongo dira, akziodun berrien eskuetan. Noski, mozkinak banatzerakoan interes pribatuek eta publikoek talka egin dezakete. Eta, azkenean, kaltea gizarte ekintzarentzat izango da, kutxen ikurrarentzat.

Borondatezko erreforma?

Espainiako gobernuaren arabera, abiatu den finantza erreforma borondatezkoa da. Espainiako gobernuak Ekonomia presidentorde Elena Salgadok dioenez, eredu aldaketari buruzko edozein erabaki hartzeko kontseiluaren eta batzar nagusien bi herenek onartu beharko

**Italian, hasieran, bankuei
negozioaren zati bat
saltzea borondatezkoa zen,
eta azkenean,
derrigorrezko bihurtu zen.
Gaur egun ez dago aurrezki
kutxarik**

dute. Teorian erreforma borondatezkoa da baina, esperientziak dio teoriar borondatezkoa den erreforma, azkenean, derrigorrezko bihurtu

tzen dela. Horixe gogorarazi du berriki Luis Olivás Bancazako zuzendaritzako kideak. Olivasek kutxak aldatzeko eredu italiarraren bertuteak aipatu zituen. Italian, hasieran, bankuei negozioaren zati bat saltzea borondatezkoa zen eta, azkenean, derrigorrezko bihurtu zen. Gaur egun ez dago aurrezki kutxarik herrialde horretan.

Sektorearen despolitizazioa

Kutxen erreforma sektorearen kudeaketaren profesionalizazioa eta despolitizazioa ere berekin dakartza. Erreforma hiru urteko epea ezartzen du hautetsiek –estatuko nahiz autonomietako parlamentariak, zinegotziak, administrazioako goi karguek eta abarrek, sindikatuen ordezkariak salbu– kutxen kudeaketa organoak utz ditzaten. Hala ere, parlamentu autonomikoek izendatuko dituzte ordezkariak, eta ez gobernuak. ■

Babeslea: Gaindegia



Euskal Herria, garapen jasangarriko unitatea
Euskal Herria Europako Batasuneko hego-mendebaldeko nazioa

Eragile ekonomiko eta sozialen sarea
Zatoz zu ere, EGIN ZAITEZ BAZKIDE. www.gaindegia.org

Gaindegia, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
gaindegia@gaindegia.org • 943 304 365



Euskal Herria ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatoire pour le développement économique et social de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

Hizkuntza Plangintza Ikastaroa

Soziolinguistika dosia ikasle gosetiei

Hizkuntza Plangintza Ikastaroa (Hiznet izenarekin ezagunagoa) EHUren eta Eusko Ikaskuntzaren hitzarmenari esker eskaintzen den graduondokoa da. Hamar urte dira Eusko Ikaskuntzak abian jarri zuela. Osasuntsu dabil, soziolinguistika egarri dira euskara teknikariak eta hizkuntzalariak.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

BITXIA DA. Euskal Herrian, euskararen biziraupenaz, hizkuntza gatazkaz eta elea-niztasunaz beste toki asko-tan baino gehiago hitz egi-ten da. Aldiz, maila akademikoan horren isla ez da parekoa. Hiznet gra-duondoko ikasle asko sozio-logia eta hizkuntzalaritza ikasiak dira, eta beste hain-bat teknikari lanean batean eta bestean ari direnak. Inork ez du soziolinguisti-kako titulurik, ez baitago halakorik hemengo unibertsitateetan. Fakultaterik eta ikasketa adarrik ezean, graduondokoa. Eta Euskal Herriko Unibertsitateko Berezko Titulu hori ez da hutsetik sortu.

Iñaki Martinez de Luna soziolo-goa Hizneteko zuzendaria da orain eta Hiznetez galdetuta 1994. urtera egin du atzera. EHUren Leioako Campusean hizkuntza plangintza ikastaroa antolatu zuten. Garai har-tan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailaren gidaritzaz Pello Salaburuk zeramala, Jaurlaritzak ordaindu zuen egitasmoa. Jaurlari-tzak ordaintzeari utzi zionean ikas-taroa bertan behera geratu zen.

2001ean Eusko Ikaskuntzak Mar-tinez de Lunari galdetu zion ea berriz ere ikastaroren bat antolatzeko modurik izango zukeen. Eusko Ika-skuntzaren Asmoz Fundazioa orduan sortu zen eta honen eskutik abiatu zen hizkuntza plangintza ikastaroa, Olatz Olasok asmatutako Hiznet ize-narekin. Olatz Olasok eta Martinez



Ikastaroa on-line bada ere, urtean aurrez aurreko lau saio izaten dituzte. Argazkian, Kike Amonarriz eskolak ematen.

de Lunak jarri zuten abian Hiznet. Azken horrek, hasieran, ez zuen luze biziraungo zuen itxaropen handirik: “Uste nuen, zorte pixka batekin, biz-pahiru urtez iraungo zuela. Gakoa euskalgintzako hainbat erakundere-kin egindako zubi lana izan zen. Zer esana izan zezakeen guztia sartzen saiatu ginen. Denek jarri zuten hobe-rena ekimena martxan jartzeko”.

Ikasleak, batik bat filologoak

2007-2008 ikasturterako, hainbat ahaleginen ondoren, Eusko Ika-skuntzak lortu zuen Euskal Herriko Unibertsitatearekin Hiznet gra-duondokotzat hartzea, hau da, titulu ofiziala izatea, Hizkuntza Plan-gintza Ikastaroa izenarekin.

Graduondokoaren helburua ondoko lau ezaugarritan laburbildu daiteke: ikasleei soziolinguistikaren oinarritzako ezagutza ematea, hizkun-tza diagnosiak edo azterketak egiteko erremintak ematea, euskararen egoe-ra orokorra azaltzea eta abian diren

hainbat hizkuntza plangin-tzen (udaletakoak, Eusko Jaurlaritzakoak, hezkuntza alorrekoak, lan munduko-ak...) berri ematea. Euskara teknikarientzat, euskarare-kin lana egiten duten profes-ionalentzat, euskalgintzako elkarte edo kideentzat, eta euskararen inguruan lan egiteko asmoa daukatenen-tzat da ikastaroa.

Ikasleen perfila ez da gehiegi aldatu hamar urteotan; gehienak hizkuntzalari-tza ikasitakoak dira eta batzuk sozio-logiatik datoz. Unibertsitate ikasketak bukatu berri dituztenak dira mordoska, baina badira irakas-kuntzan, enpresetan, udaletan, itzul-pengintzan eta euskara elkarteetan lanean ari direnak, asko teknikariak. Iñaki Martinez de Lunak hamar urteotako ikasleak ezagutu ditu: “Aldaketa prestakuntzan izan da, orain dauden askok asko dakite, eta lehen ez”. Irakasleei dagokienez, hainbat alorretan lanean edo irakas-ten ari den jendea da, Martinez de Lunaren ustez, “zoritxarrez balio duten guztiak ez daude, baina dau-den guztiek balio dute. Oso onak dira”. Hasi berri den ikasturteko ira-kasleen zerrenda goian daukazue.

Foroak eta wikiak

Ikastaroa Internetez gidatzen du Asmoz Fundazioak eta koordinazio lanaz gaur egun Saioa Labaka ardu-ratzen da. Plataforma birtualean garaian garaiko ikasgaiak jasotzen

Irakasleak 2010-2011 ikasturtean

- Jon Aizpurua
- Olatz Altuna
- Kike Amonarriz
- Jose Mari Arakama
- Asier Arrieta
- Iñaki Arruti
- Andoni Barreña
- Jose Inazio Basterretxea
- Kontxesi Berrio Otxoa
- Paul Bilbao
- Diego Egizabal
- Xabier Erize
- Lore Erriondo
- Iñigo Fernandez
- Iñigo Garaialde
- Rober Gutierrez
- Jone Miren Hernandez
- Santos Izagirre
- Nekane Jausoro
- Lionel Joly
- Patxi Juaristi
- Paula Kasares
- Iñaki Marko
- Zesar Martínez
- Pablo Mendizabal
- Olatz Olaso
- Pablo Suberbiola
- Mikel Zalbide

dituzte ikasleek eta irakurritakoan testa egiten dute, alegia, galdera-erantzun laburreko metodoa erabiltzen da ikasleari nota jartzeko. Testa gaitututa ariketa bat egiten dute. Irakasgai batzuetan, irakasleak galde diezaioke zer iritzi duen halakori buruz edo beharbada egoera erreal bat irudikatuko dio, udal teknikaria dela pentsatzeko esango dio eta

2009an ikasleek egindako sakontze egitasmoetako batzuk

- ✓ Motibazioaren garrantzia hizkuntza ohituren aldaketan.
- ✓ Enkarterriak eta euskara.
- ✓ Hartzailearen araberrako diskurtsoak lan-munduko euskara planen sustapenean.
- ✓ Eusko Jaurilaritzako Ekonomia eta Ogasun saileko erabilera plana.
- ✓ Identitatearen hizkuntza, hizkuntzaren identitatea?
- ✓ Euskalteleko langileen iritziak euskararen balioen gainean.
- ✓ Euskararen normalizazioa Bizkaiko Foru Aldundian.
- ✓ Kode Alternantzia lagunarteko gazte hizkeran, Zaldibia eta Ordiziako kasuak.
- ✓ Politiko elebidunak euskaraz eta gaztelaniaz.
- ✓ Suomiera eta gaelera, norabide desberdinetan ibili diren bi hizkuntza.

halako egoeraren inguruan zer egin-go lukeen pentsatu eta idazteko eskatuko dio. Ariketa horiek banaka egin daitezke, baina taldeka ere ari-tzen dira, wikien bidez. Azken urteotan indarra hartu duen lan egiteko beste modua foro bidezkoa da. Gai baten inguruan ikasle baten eta bestearen erantzunei esker hausnarketa kateak osatzen dituzte, Martinez de Lunak esan digunez, foroetako truke horiek gordetzea dira, duten eduki mailagatik. Foroak foro, online izateak dituen baldintzak osatzeko, aurrez aurreko saioak txertatu ziren duela urte batzuk eta orduz geroztik urtean lau aldiz biltzen dira irakasle eta ikasleak Udako Euskal Unibertsitateko Eibarko egoitzan.

Proiektu errealistak

Ikasle guztiek badakite ikasturtea bukatzerako sakontze egitasmoa –goian iazko entresaka– egin behar dutela. Asmoz Fundazioak gai

zerrenda eskaintzen die, baina norberak bere gaia proposatzeko aukera ere badu. Kontuan izanda ikasleak asko lanean ari direla, lan esparruan aplikatzeko balioko luketen proiektuak egiten dituzte sarri. Labaka koordinatzaileak esan digunez, “egitasmoa bukatutakoan galdetzen diegu ea zintzilik dezakegun webgunean. Batzuek baietz esaten digute eta beste batzuek ezetz, adibidez, enpresa jakin bateko barne informazioa erabili delako edo gehiago sakondu nahi dutelako”. Martinez de Lunak horrela definitu ditu lanok: “Ez dira lan esoterikoak, marfilezko dorrean egiten direnak, premiei erantzun nahi dieten lanak dira. Interesgarriak dira eta batzuk oso onak”.

Esandakoa, ikasleek egitasmoak praktikara eraman nahi dituzte. Hiznetek horretarako balio du, hizkuntza kudeaketa korapilatsuan irtenbide arrakastatsuak aurkitzen laguntzeko. ■

Zure itzulpen eta argitalpen lanetarako zerbitzu integrala

- ✓ Hizkuntz eskaintza zabala
- ✓ Argitalpen lanak
- ✓ Zerbitzu integrala:
itzulpenak, zuzenketak,
diseinua, maketazkoa,
inprimaketa...

Narkis Balentziaga, 2. 20749 Arroa (Gipuzkoa) Tel.: 943 148 306 Faxa: 943 897 380
bakun@bakun-itzulpenak.net www.bakun-itzulpenak.net

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

SOS Iruña-Veleiaren salaketa bertan behera

SOS IRUÑA-VELEIA plataformak salaketa jarri zuen Arabako Foru Aldundiaren aurka Iruña-Veleiako aztarnategian ondarea desegiten ari zelakoan. Auzitegiak ordea, atzera bota du salaketa, nahikoa frogarik ez dagoelako. Bestalde, SOS Iruña-Veleia plataformak auzia argitzearen alde dauden 2.132 sinadura aurkeztu ditu Foru Aldundian.

Gai honen harira *Berría* egunkarian Amerikako Estatu Batuetako Roslyn May Frank irakaslea elkarriketatu dute eta, bestea beste, hau dio Iruña-Veleiaren aferaz:

“Gaiak guztiz liluratuta eta kezkatuta nauka. Nire ustez, grafitoak benetakoak izan daitezke. Ezin dut ulertu gertatzen dena. Ezin dut ulertu nola ez diren egin auzia betiko erabakiko luketen laborategiko analisi fisiko-kimikoak. Gai hau ez da Araba edo Euskal Herrikoa soilik, aurkikuntzak benetakoak balira, mundu mailako garrantzia izango lukete. Horregatik, oso larria iruditzen zait hain argudio arinekin faltsutzat jotzea”.

‘Atera arbela kalera!’

AEK-REN KANPAINA DA. Ez da euskaltegiaren izena ematekoa, leloak

dioen bezala, kalean euskara erabiltzeko kanpaina da. Argazki mordoa atera dituzte AEK-k Euskal Herrian dituen mintzalagun taldeek, eskutan arbela dutela. Arbelean hitz andana: “auzoan”, “kalean”, “mendian”, “hor”, “edonon”, “bikotean”, “egizu amets”... Praktikatu.blogspot.com webgunean dago musika martxosoarekin egindako argazki muntaia. Helburua horixe, hain sinplea eta hain konplexua, norberak dakien euskara erabiltzea.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Greba orokorra ez desprestigiatzea

Langile mugimenduaren historian, greba orokorra tresna garrantzitsua izan da gobernuen eta patronalaren aurrean egin beharreko aldarrikapenen alde borrokatzeko. Tresna hau, ez da erabili edozein momentutan eta edozer egoeratan. Momentu erabakiorretan baino ez da erabili, indarrak neurtuz, helburuak lortzea aurreikusi denean. Eta batez ere, beti erabili izan da indar eta sentsibiltate ezberdinen arteko ekintza bateratua egon denean. Gainera, greba orokorrarekin lortu nahi da sektore guztiak geraraztea, ez bakarrik industria: garraioa, administrazioa, ostalaritza, zerbitzuak, komertzioa, hezkuntza, osasungintza, kirolak, kultura... Azken batean, greba orokorrak herritarren eta gizartearen bizitza gerarazi behar du.

Joan den astean, irailaren 29an, CCOO eta UGT-k Hego Euskal Herrian deituriko greba orokorraren emaitzak, bai eta sindikatu aberzaleek aurretik deiturikoenak ere —jarraipenaren inguruko zifra-gerra albo batera utzita—, oso mugatuak izan dira. Euskal gizarte eta herritarren bizitza geraraztetik oso urrun egon dira. Beraz, ezin da greba orokor baten edo bestearren arrakastaz hitz egin. Greba orokorrak ugaltzeak —urtebete hiru greba Hegoaldean eta lau Iparraldean—, ekintza bateraturik gabe eta sektoreak eta herritarren bizitza geraraztea lortu gabe, bai Hegoalde eta bai Iparraldean ere, ez du prezeski greba orokor batek izan behar duena prestigiatzea lortzen. Sindikatuek autokritikarekin aztertu beharko lituzkete beren ekintzak eta deialdiak, bai eta greben aurretik sektore, auzo eta herrietan egin duten antolaketa eta lan aktiboa. Berriz ere akats beretan ez erortzeko eta langileak ez gogaitzeko. Eta modu horretan, ez desprestigiatzeko benetako greba orokorra.

Juan Mari Arregi



BAHEA

Iñaki Arrutik gipuzkoaeuskara.net-en esanak: “Hainbat pelikulan ikusi izan dugu New Yorken taxi bat hartzen duen hainbat bezero gidariarekin elkar ulertu ezinik ibiltzen dela, hark, kasu horietan atzerritarra gehienetan, ingelesez ez dakielako. Orain egun batzuk entzun nuen Euskadi Irratiko *Mezularia* programan antzeko egoerak ere gertatzen ari direla Bartzelonan eta gaztelaniazko edo katalanezko gaitasun-proba bat gainditu beharko dutela taxi-gidariekin, taxi-gidari izateko baimena lortu ahal izateko, datorren urtetik aurrera. Datorren urtean ere, Gipuzkoan mila inguru ‘zinegotzi-baimen’ emango ditugu gipuzkoarrok maiztean izango ditugun udal hauteskundeetan. Nik, baimen hori jasotzeko, gaztelaniazko eta euskarazko gutxienezko gaitasun-maila bat eskatuko nieke; taxi-gidariekin egingo zaien antzera”.

Bilbo: azala eta mamia

LARUNBATEKO manifestazioak iradoki zuen euskal gizarteko gehiengo soziala non dagoen: giza eskubide guztien alde, eskubide zibil eta politikoen alde eta, une politiko zehatz honi dagokionez, bake prozesu sendo eta atzeraezina bultzatzeko irrikitan. Hori da mamia, garrantzitsuena. Adierazi EHk lehenik eta ondoren Sabin Intxaurrek eta Iñaki Zarrak beste zenbait herritar ezagunekin batera deitutako manifestazioak debekatu ondoren, iragarria zegoen etorriko zena.

Baina beti daude ñabardurak, horietakoa EAJ ere manifestazioan izan zela, abertzalego osoa bilduz. Oraingoan, gainera, ondoren ere izan da ika-mikarik, besteak beste, EAJ eta Aralarreko buruzagiek Batasunak manifestazioa bere ubidera eraman izana salatu dutelako.

Lerro hauek idazterakoan deitzaileek ezer adierazi gabe zeuden oraindik, baina edozein modutan ez dirudi salatutakoek manifestazioaren helburua eta arrakasta itxuraldatzen dutenik. Hainbat eratako arazo eta errealitate egon daitezke halako salaketan eta ekitaldi baten atzean, baina sektore politiko oso zabal baten manifestazio eskubidea "orain bai, orain ez" erabaki arbitrarioaren menpe dagoenean, halakoak gertatzeko arriskua handitzen da. Hainbeste aldarrikatzen den elkarrizketaren hauts horiek, eragile politikoen artean behar bezala barreiatuz, samur gainditzeko moduko arazoak beharko lukete adierazitakoak.

Espainiako egunkari garrantzitsuenek bapo azpimarratu zuten uztailaren 10ean Bartzelonan egin zen manifestazio jendetsuan Montilla presidenteari luzatutako irainena. Gertatu zen, zalantzarik gabe, baina ez da hori izan manifestazioak etorkizunerako utzi zuen



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

mezua. Haizeak samur eraman zituen irainok, eta balorazio politikoa da gertakari hark aurrera begira utzi duena: burujabetzaren bidean, Kataluniako gizarteak beste urrats garrantzitsu bat eman zuela. Ba horixe.

BRUSELAKO ADIERAZPENAREN sinatzaileak berriz ere argi mintzo dira ETaren aurrean: eman dezala su-eten aldebakarrekoa, iraunkorra eta egiaztagarria. Erantzun tinkoa, inondik inora, Madrili eta nazioartekoari begira seguruenik, baina baita ETA berari ere.

Nazioarteko gatazketako hainbeste aditurekin, pentsatzekoa da bestelako mezu malguagorik ere luzatuko ziotela erakunde armatuari eta sukaldean lanean ariko direla. Laster samar jakin beharko da eta bestela ez da seinale onik izango prozesuaren osasunari dagokionez. Maiatzeko udal eta foru hauteskundeak gainea, eta Gernikako Ituna eta Bruselako Adierazpenaren presiopean, ETA ezin da gehiegi luzatu eskaerei baiezkotzat eman gabe. Gabonetako muga hor dago.

IRAILAREN 29-AN ez zen greba orokorrik izan Euskal Herrian, euskal gehiengo sindikalak bere saioa antolatu zuenean egon ez zen bezala. Baina salbuespenak salbuespen, oro har, oraingoan greba deialdiaren eragina orduan baino txikiagoa izan da euskal gizartearen.

Jende askok nahiko luke sinikatu abertzaleek ere bat egin izatea halako greba deialdiarekin, baina errealitateak dio euskal sindikalgintza gaur gaurkoz ez dagoela horrelako urratsak emateko moduan.

Arazo berberen aurrean batzuek eta besteek muturreko jarrerak erakutsi dituzte azken urte luzeetan. Gehiengo sindikalarientzat, CCOO eta UGT egoera honen konplize dira zelanbait. Eta hauentzat, ELA eta LAB sistemaren aurkako eredu sindikalean kokatuak segitzen dute.

Oraingoz gaitza dirudi posizioak gerturatzea, baina egoerak larritzen jarraitzen badu, indar denak ere gutxi izango dira datorren murrizketa garaiari aurre egiteko. Enpresetan batzuetan lortzen dituzte akordioak. Eta, jakina, ez letorkieke gaizki bakegintzaren eremuan ematen ari diren mugimenduei.

Europako botoak atzetik aldarazten dituzten lobbyak

Estrasburgon eta Bruselan, erabaki politikoak hartzen ari den europarlamentari bakoitzeko enpresen interesak zaintzen dituzten 20 agente baino gehiago dago. “Interesen ordezkari” izendatzen dituzte beren buruak, prentsak lobbyista deitzen die, eta beren lana dute eurodiputatuen jardueran eragitea. Europako legeetan, alegia.

LOBBYGINTZA BATAIATU DEZAKEGU ingelesez *lobbying* izendatzen dutena. Ala “atezaintza” ote litzateke egokia-goa? Ingelesezko *lobby* hitzak etxeko atariondoa aipatzen du, gure inguruko erdaretan *vestíbulo* edo *hall* esaten diotena. Salmentan ari diren beharginek bezeroaren zain pasa beharreko tarteari *alfonbra xanpatzen egotea* deritzote (*pisando el felpudo*, gaztelaniaz). Europako enpresa handien ordezkariak politikariekin zorte hobearekin eta hauen bulegoen barruan egiten dute lana. Saltzaileak ez baina aholkulariak omen dira.

Berrikitan *Vamos a cambiar el mundo* blogak plazaratu du analisi bat *Periodismo Humano* guneko Juan Lluís Sanchezi hartua: *Los grupos de presión rodean al poder político en Europa*. Argazkian erakusten du Bruselako hotel batean EuropaBio izen ponpoxoa daukan bioteknologiazko enpresak antolatutako bazkaria, janari transgenikoz hornitua, lobby batek antolatua; gutxienez eurodiputatu aleman bat azaldu omen zen.

Horrelako sustapen ekintzak eguneroko antolatzen dira Bruselan bezala Estrasburgon, edo berdin eurodiputatuak antolatutako bidaietan. Lobbyistak Europako Parlamentuan eta Batzordean lan egiteko akreditazioen jabe dira eta “beren bizitza partekatzen dute funtzionari eta politikariekin, hauek hiri horietan

gehienetan ez daukatelarik bestelako ingururik”, dio Sanchezek.

Legezko jarduera burutzen dute lobbyistok, erabaki politikoak eskutatik daukatenen aurrean defendatzen dituzte horretarako pagatzen dieten enpresa, erakunde edo herrialdeen interesak. Europar Batasunak, gardentasunaren izenean publiko egiten duen zerrendan horrelako 3.000 pertsona omen dira lobbyistintzan agerian izena emanda. Ez dira gehiegi, kontutan hartuta Amerikako Estatu Batuetan Washingtonetik atera gabe 15.000 ari direla lan horretan.

“Agerian” horrek ere badu bere amarrua: izen ematea borondatezkoa da. Gai hau hurbiletik ezagutzen dutenak ziur daude izatea deklaratu duten lobbyak benetan ez direla politikariengan eragiten saiatzen diren guztien erdiak.

Korporazio eta enpresa taldeek batzuetan ordezkariak bidaltzen dituzte lobbylaritzara, baina sarritan *consulting* enpresa berezitu batek defenditzen ditu haien interesak. Juan Luis Sanchezek galdetuta, CLAN Public Affairs-eko aholkulari batek honela definitu du bere lana: “Bezeroei laguntzen diegu pertsonalitate garrantzitsuengan eragingo duten erabakiak hartzen, dauzkaten interesak gero Europar Batasunaren legedian mamitu daitezten.

Corporate Europe Observatory (CEO) erakundearen gunetik hartutako irudi honek erakusten ditu Jose Manuel Durao Barroso Europako Batzordeko presidentea eta Siim Kallas presidenteordea lobbyistarien erregistroarekin jolasean: bertan idatzitako izenak moztu eta alfonbraperara ezkutatu dituzte. CEO eta honek dinamizatzen duen Alter-EU federazioak salatu dute Europar Batasunean politikariengan eragiten saiatzen diren aholkularien zerrendak horietako urri batzuk besterik ez dituela biltzen, izena ematea borondatezkoa delako. Aldiz, enpresa handien eta politikarien arteko interes nahasketa agerian uzten duten eskandalu gehiago lehertu dira. *Revolving door* edo ate birakaria deitzen dena jazo ez dadin –politikan eta korporazioetan sartu-irteera kontrolik gabea– kargua uzten duen politikariak agindu duen atal bereko enpresetan aritzea hiru urtez debekatzea proposatzen dute.

Berrikitan lobbyistintzako liderretan dagoen Reti SpA konpainiak *Lobbying Spain* blog korporatiboan elkarriketatutako Nenzo Fenulli aholkularia, Edison energia enpresaren interesak zaintzen dituenena. “Lobbystek legeak egiten dituztenei informazio erabilgarriak ematen dizkiete. Sarritan eurodiputatuak ezin dute arazo guztien ikuspegi orokor eta osoa eduki”, deklaratu du Fenullik. Bere ustez European presio talde handienak dira autogintzaren eta energiaren ingurukoak, agro-elikaduran ari direnak ahaztu barik.

Ate birakariak ez dira gardenak

Bere burua “lobbyintzaren gardentasunaren eta arauketa etikoaren aldeko aliantza” definitzen duen Alter-EU erakundea da European lobbyen sektoreaz ahalik eta informazio gehien lortu eta zabaltzen dutenetako bat. Gardentasuna eta arauketa, jakin dadila Bruselan eta Estrasburgon zein zenbat nola gatatzen ari den presio egiteko. Bistakoa baita enpresa handiek askoz ahalmen handiagoa dutela politikariengan eragiteko bestelako giza talde eta mugimenduek baino, zer esanik ez herritar xume baten aldean.

“15.000 baino gehiago dira gaur egun –dago idatzita Alter-EUren gunean– Europar Batasunaren instituzioetako korridoreetan lanean ari



diren profesional lobbyariak, gehienak enpresen interesen ordezkariak. Gardentasun eta etika araurik gabe, korporazioen lobbyen eragina jendearen begien bistatik urrun garatu da. Horiek daukaten ahalmenagatik Europar Batasuneko erabakiek beren zuzentasunaz zalantza asko sortzen dituzte”.

Lobbyariak politikarien artean sarbide pribilegiatua daukate. Alter-EUK kasu batekin argitzen du. Bioerregaiei buruzko ikerketaz gomen-dioak prestatu behar zituen batzordean, industria handiaren ordezkari ari omen ziren: petrolio konpainietako 4, bioerregai konpainietako beste 4, elikadura industriako 1, basogintzako beste 1, eta bioteknologiazko konpainietako beste

bat. Ba omen zen nekazari bat eta 8 akademiko, horietako batzuk loturak dituztenak aurretik aipatu konpainiekin. Aldiz, ingurumenaren aldeko mugimenduen ordezkari bakar bat ez zen egon. Horrela osatu omen zen Europar bioerregaiak 2030a arte eta aurrera begira planifikatu zituen txostena.

Lobbygintza lotuta dago *revolving doors* edo ate birakarien fenomenoarekin ere. Hots, Europako Batzordeko kide ezagunek kargua utzi ondoren han landu duten atal bereko konpainia handien buru bihurtu direla. Esaterako, Jean Paul Mingason industria kimikoaren arauketan aritu zen EBaren baitan, eta politika utzita arautegi horren kontrako aholkulari bihurtu da. James Currie,

segurtasun nuklearrean eta babes zibilean zuzendari nagusi aritu zena, kargua utzita British Nuclear Fuels konpainiako aholkulari ari da.

Horrez gain, Alter-EUK salatu duenez, zenbait presio talde lanean ari da besteren ardi-larruz beztiturik, irabazi asmorik ez duten fundazioen ordezkariak edo aditu independenteak bailiran. 2005ean Campaign for Creativity (C4C) izeneko talde bat aritu omen zen Europako aginteen korridoreetan jira eta bira, bere burua artista, musikari, marrazkilaria eta software sortzaileen sorkuntzaren interesak defendatzen ari zelakoa. Hala ibili zen, azaldu zen arte Campbell Gentry harreman publiko taldearen besoa zela: multinazionalen patenteak zaintzen zebilen zorrozki.


Lobbygintzaren eskandaloez gutxitan entzuten du herritarrak oihartzunik, nahiz eta Europako Korporazioen Behategia (*Corporate Europe Observatory*, CEO) bezalako erakundeek albiste kezagarriak zabaltzen dituzte. Urrunago joan gabe, CEOk joan den ekainean plazaratu zuen nola elikadura eta edarien konpainia handiek 1.000 milioi euro (esatea errez da!) gastatu duten Europar janariak beren osaketa azalean osorik erakustera behartu nahi zituen legearen kontra.

Baina euskaldunoi zer erakutsiko digute lobbygintzaz eta ate birakariez... Hemen gizon bera hilabete gutxi tartearen aurki daiteke zementu fabrikako zuzendari, neumatiko erretzaile, ingurumen aholkulari, diputazioek ordainduta hondakinen planifikatzaile, eta Jaurlaritzan energiako sailburuorde. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia




Ongizate estatuaren ordezkoko bila?

Jadanik badira berrogei urte ongizate estatua ahultzen hasi zela. Lehenbizi Milton Friedman bezalako ekonomialari neoliberaletan teorizatu zuten estatuak ekonomian eskuhartzearen aurka. Izan ere, estatuaren eskuhartzeak ekonomia jarduerari kalte egiten omen dio eta estankamendura eramanez.

Keynes eta keynesiarren teoria ekonomikoak auzitan jarri zituzten Friedman eta enparauek, eta teoria horiek praktikan jartzea besterik ez zen geratzen. Horretara heldu ziren Thatcher anderea Erresuma Batuan eta Reagan AEBetan. Gerora, Europako kontinentera ere iritsi dira neoliberalen politika ekonomikoak, batik bat Europar Batasunera (EB). Hor, gehien bat, Europako Batzordea da neoliberalen aitzindaria, ahaztu gabe EB osatzen duten herrialdeetako gobernuak, sozialdemokratenak barne; hauen artean R. Zapaterorena: oroitu zer esaten zuen eta zer ari den egiten.

Neoliberalismoak ongizate estatua mehartzea ekarri du, baina mehartze hori eskandinaviarrek nahiko ondo saihestu dute. Izan ere, herrialde hauetan oraindik estatuak Barne Produktu Gordinaren (BPG) erdia baino gehiago kudeatzen du. Horrek esan nahi du zerga garaia dituztela eta ondorioz gastu publiko maila esanguratsuekin jarraitzen dutela. Gastu horien artean, gizartera zuzenduak, hain zuzen gastu sozialak, munduko altuenak dituzte. Egoera hori benetako sozialdemokratek babestu dute, nahiz alderdi kontserbadoreek ere ongizate estatuaren ikurrari eutsi dioten.

Bestalde, eskandinaviar herrialdeek jakin izan dute alokairu oparoa, ongizate estatu indartsua eta lehiakortasuna konjugatzen. Gainera, krisialdi honetatik nahiko ondo irteten ari dira. Nola? Bada, hezkuntza sistema etengabe hobetuz, eta, batik bat, Ikerkuntza eta Garapenari lehentasuna emanez,



MADDI SORO

nez, non munduko gastu altuenak baitituzte, Espainiako Estatukoak baino hiru bider handiagoak!

Estokolmoko eskualdean I+Gean egindako gastua BPGren ehuneko 4,5 inguru da eta horri esker lortu dute krisialditik hain erraz irtetea. Hego Euskal Herrian gehien hurbiltzen zaion eskualdea Deba

Garaia da, baina beste aldar-te diferente batean.

Orotara, adibidez, Suediak gastu sozialetara BPGren ehuneko 32 inguru bideratzen du, Hego Euskal Herriak baino 15 puntu gehiago! Hala ere munduko merkatuetan lehiakor dirau.

Baina dena ez da orain arte bezala izango. Izan ere, hainbat hamarkadatan gidari izan den alderdi sozialdemokrata ahultzen ari da. Horren froga azken hauteskundeak dira, alderdi kontserbadoreek irabazi baitituzte eta beraien programa betetzen baldin

badute, klase ertainen zergak arindu egingo dituzte. Eta jakina, ongizate estatua zerga aurrerakorretan oinarritzen bada, horrelako neurri fiskalaren ondorioa ongizate estatuaren arintzea izango da.

Honen guztiaren ondorioz jadanik erantzuna izaten ari da, bai Suedian, baita beste eskandinaviar herrialdeetan ere, hirugarren sektorea, gizarte ekonomia, deritzona ari baita garatzen. Ongizate estatuaren jardue-ra asko hirugarren sektorea bereganatzen ari da, gizarte zibilak sortutako enpresa sozialetara bideratuz. Ongizate estatuak gizarte ongizateari ateak ireki dizkio. Merkatuak eta estatuak beharrianak asetzen ez dituztenean, hirugarren sektoreak erantzungo die.

Euskal Herrian ohituta gaude gizarte zibiletik beharrian publiko zein pribatuei erantzuten. Orain bertan ere ari zaizkigu beharrian berriak azaltzen eta hauek guztiak asetzeko gizarte zibilak prest egon beharko du, daukagun bizi mailari eutsi nahi badiogu. Eredutik badaude begiratzeko borondatea baldin badugu. ■

Alderdi sozialdemokrata ahultzen ari da.

Horren froga azken hauteskundeak dira,

alderdi kontserbadoreek irabazi baitituzte


eta beraien programa betetzen baldin

badute, klase ertainen zergak

arindu egingo dituzte

ASTE HONETAKO

zozketak



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka, NAFARROA

www.atxaspi.com

1



Inguru Abentura

Eskalada eta Rappela
3 bikoterentzat opari

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

2



Txuri-Urdin izotz jauregia

2 harpidedunentzat
launa sarrera opari

Anoetako pasealekua, 24
Donostia GIPUZKOA

www.eltxuri.com

3




Pello Mari Otañoren arnasa 1857-1910

5 liburu opari

Hernandorena Kultur Taldea

www.zizurkil.com

4



Artez euskara zerbitzua

4 harpidedunentzat
3 agenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

5



AZKEN IRABAZLEAK (2245. Argia)

UROLA JATETXEA

- Iñaki Mundiñano Larraza (Etxarri-Aranatz)

TXURI-URDIN

- Jon Caballero Gomez (Irun)
- Joxe Mari Ibarburu Arotzena (Donostia)

ESAIT

- Karmen Alvarez Yagüe (Donostia)
- Xabier Zuzarregi Salaberria (Zizur Nagusia)
- Jabier Altzorritz Lardies (Donostia)

JON & SUGRAMAS

- Fernando Bustillo Maestro (Donostia)
- Eneko Maiz Ganboa (Orexa)
- Josu Aldama Larena (Bitoriano, Zuia)
- Imanol Arluziaga Esnal (Donostia)
- Jesus Mari Olaizola Lazkano (Zarautz)

ZIZTADAK

- Ainara Arbulu Saez de Bikuña (Gasteiz)
- Juan Jose Astibia Olano (Leitza)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



Bazen behin...

Mahai-jolasa

4 ZAILTASUN MAILA

- Hasiberriak
- Jarraitzaileak
- Adituak
- Profesionalak

6+

Galdera-erantzunak
bost ataletan banatuta:

- Zirkulazio-aparatua
- Nerbio-sistema
- Digestio-aparatua
- Inmunitate-sistema
- Gaixotasunak

bizitza

2.200 galdera giza gorputzari buruz



39€

Harpidedunentzat

35€

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com

Ludi**toys**

www.luditoys.com

**"Egin jolas giza gorputzari buruz
beti jakin nahi izan duzuna ikasiz"**